

# t tipi t tapa

418



## «Bai eskolak euskalduntzeari»

03

Gauregungo hezkuntza sistemak euskara menperatzea ziurtatzen ez duelakoan, «Bai eskolak euskalduntzeari» sinadura biketa kanpaina egingen da.



## Xabier Altzugarai Garferekin debuta

32

Xabier Altzugarai aurrelari almandoztarrek Garfe enpresaren eskutik egingen du debuta profesionaletan. Apirilaren 1ean Lesakan arituko da.

2006ko martxoaren 16a • XXVI. urtea



03 ORONOZ-MUGAIRIKO ESKOLAN

Moldaketa lanak  
behingoz akitzea eskatu dute



ZELAI - TXIKI

ZURGINDEGIA



Nahi duzun  
neurrira eta  
estilora;  
**gaztaina,**  
**haritza,**  
**intxaurrea,**  
**gerezia**

Errota, 13  
Iraetako Industrialdea  
20740 Zestoa  
Tfnoa: 943 14 75 32  
Fax: 943 14 78 65  
www.zelaitxiki.com

*Altzari klasikoak  
nahiz modernoak*



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK

SORTUKO DU:

BEGIRALEEN, ZAINTZAILEEN ETA NEURTZAILEEN LAN-POLTSA

• **LANPOSTUA: Begirale arduraduna**

Bete beharrekoak:  
Formakuntza akademikoa: Batxilergoa edo Goi Mailako  
Larbidetako Heziketa.  
Berariazko formakuntza: Aisialdi eskola batak egiaztatutako  
begirale titulua.  
Euskaraz jakitea [hitzez egiteko eta idazteko gaitasuna izatea].

• **LANPOSTUA: Begiralea**

Bete beharrekoak:  
Formakuntza akademikoa: Derrigorrezko Bigarren Heziketa.  
Euskaraz jakitea [hitzez egiteko eta idazteko gaitasuna izatea].

• **LANPOSTUA: Zaintzailea**

Bete beharrekoak:  
Formakuntza akademikoa: Derrigorrezko Bigarren  
Heziketa.  
Euskaraz jakitea [hitzez egiteko eta idazteko gaitasuna izatea].

• **LANPOSTUA: Neurtzailea**

Bete beharrekoak:  
Formakuntza akademikoa: Batxilergoa edo  
Goi Mailako Larbidetako Heziketa.  
Euskaraz jakitea [hitzez egiteko eta idazteko gaitasuna izatea].

**ZERRENDAREN ERABILERA:**

Zerrenda mankomunitatearen eskaera asetzeko erabiliko da, eta, bereziki, udaleku irekietarako begiraleak kontratatzeko.  
Bortzirietako eragileei, ikastetxe, elkarte eta gurasoei eskuratuko zaie.

**ESKAERAK:**

Eskaerak martxoaren 31ko 12.00ak baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.  
Aurkeztu behar den dokumentazioa eta gainerako xehetasun guztiak deialdian irakur daitezke.  
Deialdia eskuratzeko deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara.

Arantza, 2006ko martxoaren 8an • Mankomunitateko lehendakaria, Vicente Arotzena Biurraena.  
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea • Telefonoa: 048634125 • E-posta: bortzirietak@euskalnet.net • Herriko Plaza 7, 31790 ARANTZA

**DATUAK...**

- Maite Ariztegi, Oronoz-Mugairiko Kan-Kan Guraso Elkarteko presidentea da.
- Joan den urteko abuztuan sute batek eskolako gimnasioa erre zuenetik, arazoak dituzte Oronoz-Mugairin. Moldaketa lanak oraindik akitu gabe daudela salatzen elkarretaratzea egin zuten ikasle, irakasle eta gurasoek martxoaren 6an.
- Balleko Udalaren ustez, protesta hau «arinegi egina eta burugabea da», lanak kasik akituak daudelako.



**Maite ARIZTEGI** *Oronoz-Mugairiko Guraso Elkarteko presidentea*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

# «Egia da lanak kasik akituak daudela, baina zazpi hilabete ditugu esperoan»

**Aitor AROTZENA**

Abuztuan gimnasioa erre zenetik egoera moldatzea eskatu duzue behin eta berriz. Azken mobilizazioa, martxoaren 6ko elkarretaratzea izan da...

Bai, kontua da hilabeteak pasatzen ari direla. Urtarrilaren 26an bildu ginen, hemengo kontua ez zela akitzen eta obrak ez zirela egiten ikusi genuen eta Udaletxeari obrak akitzeko epe bat jarri genion: martxoaren 4a. Martxoaren 4an lanak erabat ez zirela akitu ikusi genuen, gutti-gutti falta da, baina ez dira akitu eta horregatik egin dugu protesta.

**Udaletxetik aunitz mugitu direla eta lanak akitzeko gutti falta direla erraten dute, hemendik aitzinerako lanak ofizialen esku daudela...**

Martxoaren 15ean zazpi hilabete egin du sutea gertatu zela eta denbora sobera da egoera horrela mantentzeko. Leku falta handia da, gimnasioan sortu zen iskanbila guzira eta oraindik orain ezin da erabili gimnasio hori. Lan hori akitu egin behar da, garaia da eta horregatik egin dugu plantoa.

**«Obra egiten denean usaiaren arazoa apaltzen da, baina denboraren buruan berriz ere agertzen da»**

**Osasun Departamentuak azterketak egin ditu eta usaiak eta gai kutsakorren presentzia somatu da. Egoera hori hobetu da orain arte egin diren lanekin?**

Kontua da usaiaren arazo hori guk ere ez dakigula garbi zer den. Azkeneko obra hauekin usaiaren arazo politiki jautsi dela nabari da, baina denborarekin agertzen da berriz ere: obra egiten denean apaltzen da eta gero,

denboraren buruan agertzen da. Hasieran, hurrek ilean eta arropan izugarrizko usai ekartzen zuten eta kezkatuak ginauden. Osasun publikoaren erantzunetik ere analitika bat egin dute, ea hori kaltegarria ote den. Emaizak hemendik hilabete batera edo esku-ratuko ditugu. Arazo hori moldatzeko ekintza zuzenak egin dira bi alditan eta horretan gaude.

**Hurrek ilean eta arropan ike usai handia eramaten omen zuten etxera. Horrela izaten segitzen du?**

Hori nabaritzen zaie zokoan dagoen gelatik heldu diren batzuei, baina aunitz apaldu da. Denborak erakutsiko du erabat joan den edo ez.

## «Protesta arinegi egina eta burugabea da»

Santi Aldako, Baztango Udaleko zinegotziaren ustez, «protesta hau arinegi egina eta burugabea da. Gurasoek badakite, martxoaren 4rako epea jarri genuenean sarrieraz ari ginela, inoiz ez

genuen gimnasioa aipatu. Gimnasioa Aste Sainduko oportetarako moldatuko genuela aipatu zen. Mugitu egin gara eta kasik akitua dago, zola jartzea bakarrik falta da, baina idortu ar-

te ezin da goma paratu. Guretzat burugabea da. Guk ahal genuena eta gehiago mugitu gara, baina ofizialak ez badatoz, zintzilik dagoen erradiadorearen erantzunaren da jarri».





ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

«Bai Eskolak Euskalduntzeari» kanpainaren aurkezpena Bortzirietan. Lesakako Matxinbeltzenez hainbat gizarte eragile bildu zen martxoaren 8an.

EGUNGO SISTEMAK EZ DU EUSKARA MENPERATZEA ZIURTATZEN

# Eskolak euskalduntzearen alde sinadura bilketa kanpaina egingen da

**Irakaskuntzan orain arte indarrean egon diren hizkuntza politikak agorturik daude eta euskalduntzea bermatuko duen hizkuntza politika berria nahitaezkoa da. Ideia horren inguruan indarrak biltzeko asmoz, «Eskolak Euskaldundu» ekimenaren barrenean dauden eragileek «Bai Eskolak euskalduntzeari» sinadura bilketa kanpaina erraldoia egingen dute Euskal Herri osoan. Gure inguruan, Bortzirietan martxoaren 8an egin zen kanpainaren aurkezpena Lesakako Matxinbeltzenez; Baztanen, martxoaren 23an egingen dute aurkezpen publikoa. Malerrekan, Doneztebeko Ekaitza ostatuan eta euskaltegian, Zubietan Errandonea ostatuan eta Iturengo Herriko Herriko Ostatuan izanen da sinatzeko aukera. Goizuetan eta Leitzaan ere dagoeneko hainbat herritar bildu dira eta lantaldeak osatu dituzte kanpaina hau bultzatzeko. Leitzaan, martxoaren 20tik 27ra Maimur eta Astiz liburudendetan sinatzen ahalko da. Gainera, hilaren 21ean ikastetxeetan sinadura bilketa eguna izanen da.**

**Aitor AROTZENA**

Bortzirietan, lehen bilera zabala egin zen, kanpaina nola bideratu erabakitzeko. Bertan izan ziren Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak, herrietako euskara batzordeetak, ordezkariek eta zenbait ikastetxetako irakasleak. Ondoren, herrietako Euskara Batzordeek hartu dute sinadura bilketaren ardura nagusia eta Euskara Mankomunitateak ere kanpainari atxikimendua agertu dio.

Aitzinera begira, hasteko herritarrei kanpainaren nondik-norakoak laburbiltzen dituen orri informatiboa banatuko zaie. Gainera, zenbait herritan ekitaldiak antolatuko dira. Lesakan, errate baterako, euskara batzordeak, martxoaren 26rako, Bai Eskolak Euskalduntzeari lelopean ibilaldi bat antolatu du. Goizeko 10:30etan

Plaza Zaharretik hasita ibilaldi bat eginen da herrian barna, txistulariekin eta soinulariekin, eta ondotik haurrentzako jokoak izanen dira.

Sinadura bilketari dagokionez, berriz, herri bakoitzak bere dinamika izanen du, baina nagusiki martxoaren bigarren hamabortzaldian egingen da, herrietako euskara batzordeetako kideen bitartez.

### EGOERAREN AZTERKETA

Egia da, Ttipi-ttapak Nafarroan hartzen duen eskualdean ikasle gehienak D ereduari ari direla, eta, gainera, inguru euskaldun batean bizi direla. Baina Euskal Herriari osotasunean begiratu gero, egoera ez da horrelakoa. Sinadura bilketa kanpainaren sustatzaileen erranetan, «*ikasleen %21ek gaztelaniaz edo frantsesez hartzen ditu eskolak, euskarazko irakasgai bakar bat ere gabe. Ikasleen %25 A ereduari matrikulatua dago, eta euskara irakasgai bezala ematen du, astean lau orduz. Ikasleen %17 B ereduari ari da, irakasgai batzuk euskaraz emanez eta bertze batzuk erdaraz. Ikasleen %37 D ereduari ari da; eskola guztiak euskaraz ematen dituzte, eta astean lau orduz erdaraz ematen dute*». Gainera, zenbat ikasle akautuko dituzte ikasketak euskara behar bezala menperatuz? Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2005ean euskara maila neurtzeko azterketa egin zuten 16 urteko ikasleei. Emaitzetan agerienez, A ereduko ikasle bakar batek ere ez zuen proba gainditu, B ereduko ikasleen %67k ez zuen gainditu eta D ereduko ikasleen %32k ez zuen gainditu.

Ondorioz, gaur egungo irakaskuntza sistemari eutsiz gero, hiru ikasle-tatik bi (ia 300.000 ikasle) ez dira euskaldunduko. Beraz, milaka ikasle atzerako dira eskoletatik euskara menpe-

## ALDARRIKAPENA

Zehazki, sinadura orrietan agertuko den testua honako hau da:

### KONTUAN HARTUZ

- Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela.

- Berezko hizkuntza ezagutzea nazioartean onartutako giza eskubidea dela.

- Derrigorrezko hezkuntzak herritarrei oinarritzko ezagutzak bermatu behar dizkiela.

### ALDARRIKATZEN DUT

- Euskaraz ikasteko eskubidea Euskal Herri osoan bermatua izan dadila, ikas maila guztietan eta bereziki derrigorrezko hezkuntzan.

- Euskara ezagutzeko eskubidea bermatzea herritar orori. Eskolak belaunaldi berriak euskaldundu behar ditu.

### ESKATZEN DIET

- Euskal Herrian hezkuntza eta hizkuntza arloko eskumenak dituzten instituzioei eta bereziki Eusko Jaurlaritzan,



UTZITAKO ARGAZKIA

Sinadura bilketa kanpainaren erabiliko den irudia.

Nafarroako eta Frantziako Gobernuari, eskola bidez belaunaldi berrien euskalduntze osoa bermatzeko neurri zehatzak hartzea:

- Euskararen ofizialtasuna aitortu eta gauzatzeko, egun euskalduntzea bermatzen ez duten hizkuntza eredu politikak gainditu eta berriak definitzeko prozesuak irekiz, beharrez-

koa den aldaketa baten bidean urrats gisa.

- Honekin batera, euskarazko irakaskuntzaren kontrako neurriak eten eta euskaraz ikasteko eskubidea bera osoki bermatzea.

- Hizkuntza eskubideen egoerari jarraipena egiten dioten nazioarteko erakundeei, aipatutako aldarrikapenak gauzatzeko laguntzea.

ratu gabe. Horrez gain, Euskal Herriko hainbat eremutan euskaraz ikasteko aukerak ukatu egiten dituzte administrazioek. Nafarroan bertan adibide aunitz eman ditzakegu: lanbide

heziketara eta unibertsitatean euskararen sarrera eragozten da... eta, eskualdetik atera gabe, Berako Labiaga ikastola egoera alegalean dago oraindik orain.

## Patti MARTINEZ A ereduari ibilitako lesakarra

### “A ereduari ez dut lortu euskara menperatzea”

**A ereduari egin zenituen ikasketak. Aski izan zaizu euskara menperatzeko?**

Nik A ereduari egin nituen nire oinarritzko ikasketak. Euskara irakasgai bezala ematen genuen, astean hiruzpalau orduz. Nire derrigorrezko ikasketak bukatu nituenean ez nuen euskara menperatzen. Jakina, euskara ulertzen nuen, Lesaka bezalako inguru eus-

kaldun batean bizi nintzelako, baina eskolan eskuratu nuen mailarekin ez nintzen gai euskaraz moldatzeko. Hortaz, euskaltegira joan behar izan dut nire euskara maila hobetzera. **Zer erranen zenieke beraien haurrak matrikulatzeko tenorean dauden gurasoei?** A ereduari aukeratu nahi duten gurasoei erran nahi diet A ereduari euskara ikasi, ikasten de-

la, astean hiruzpalau orduz; baina horrekin ez dela aski hizkuntza menperatzeko, eta euskaraz komunikatzeko behar den maila edo gaitasuna eskuratzeko. A ereduaren bitartez lortzen den euskara maila hagitx eskasa da, eta ez da euskaraz normaltasunez aritzeko behar den maila lortzen. Gaur egun seme-alabak A ereduari matrikulatzea elebidun izateko aukera hasieratik zapuztea dela iruditzen zait, eta euskara ikasteko duten eskubidea ukatzea.

**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

[www.ttipi.info](http://www.ttipi.info)

[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...  
**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitzeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	30 €
Espainia	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzeta	25 €



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jauriaritzako Kultura Sailaren  
laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Lesakako gidatzaileei:

Lesakar bat naiz, eta lotsaturik nago lesakar askok gidatzeko duten moduagatik (nik nere herrikoak kontaktzen ditut).

Duela ez denbora aunitz, Lesakako errepideetan, peatoiak errepideak guruzteko «pasos de cebra» direlakoak jarri edo margotu zituzten. Ba nik, ez dakit jendeak karneta ateratzen duenean ez dioten erakusten «paso de cebra» hoiek zertarako diren, edo denetaz paso egiten dugun, zeren lotsagarria da gertatzen dena. Zu «paso de cebra» horren alde batean jartzen zara errepideak guruzteko intentzioarekin, haurrekin eta guzti, eta jendea ez da kapaza izaten gelditzeko.

Zeren esperuan gaude, berri txar bat izatea? Bilbokoaren antzekoa, jendea konturatzeko eta seinaleak errespetatzen hasteko? Lotsagarria iruditzen zait. Denbora daramat, egunero haurrekin errepidea guruztu nahian automobil bat gelditurik dagoela, eta ez dago modurik, beti gu, peatoiak gelditu behar izaten dugu.

**E.O.M. (Lesaka)**

### Non dago informazio osoa? Eta familien askatasuna?

Orain dela gutti Bortzirietako familiek jaso dugu gure etxeetan "Hezkuntza-gida" delakoa. Bere mamia ongi irakurrita ez dela "informazio osoa" ematen erran dezakegu. B ere duan bailortzen dela gure seme-alabek euskara eta gaztelania menperatzea, gaztelaniaz gain bertze gai bat erdaraz erakusten delako ("Inguru-nea" alegia). Hau horrela egiten da gaztelania ikasgaia bakarria izanda nahikoa ez delako hizkuntza hori menperatzeko, hau da, edozein gaia irakurri eta ulertzeko, entziklopedia batean jartzen duena erabiltzeko, egin behar dituzten lanak hizkuntza aberatsean egiteko... Euskara mailan B eta D ereduaren parean daudela ezin da ukatu, B ereduko beste gainerako gai guztiak euskaraz erakusten direlako eta ikasle hauek institutura pasatzen direnean Bortzirietako D ereduko haurrekin gela beretan daudela, aski nota onak ateriz.

Bertze aldetik, Berako B eredu ezin da Gipuzkoan dagoenarekin konparatu, hemengo A ereduko ikasle bat joan eta hango B ereduaren gaintu dezakeela-

ko, beraz, han gaztelania maila handiagoa da hemen baino. Erran behar dugu ere eskola guztietan, edozein eredu linguistikoa duena, aurrerapen pedagogikoak badaudela eta irakasleak ongi presatua egon behar dutela gaur egungo haurrak behar den bezala hezitzeko. Hau gertatzen da ere B ereduaren duen "Jesusen Bihotza" ikastetxe pribatua, kontzertatua (Gobernuko laguntza duena) eta erlijiosoan. Ez pentsa!

Bukatzeke, guraso talde bezala, eskatuko gura hemendik aurrera informazio osoa objektiboki izanda, askatasun osoa uztea gure haurren heziketari buruzko erabakiak hartzeko, hots, ikastetxea bere hizkuntza ereduarekin, bere irakasleekin, bere hezitzaileekin, bere instalazioekin eta osotasunean baloratuta, noski. Inork ez dezala presio biderik erabili gure etxeetara etorri, informazio murriztua eman, ezta ere gure erabakia kritikatu, gure seme-alabei hoberena emateko askatasuna denek izan behar harko gura gurek.

**Berako "Jesusen Bihotza" Ikastetxeke Guraso Elkarte.**



## Bidali ttipi-ttapa herritik kanpo bizi diren lagun edo famiakoei

(+34) 948 635458





## BERTSOLARITZA

# Nafarroako XXXV. txapelketaren finala Elizondoko Lur diskotekan egingen da apirilaren 1ean

## ttipi-ttapa

Nafarroako XXXV. Bertsolari txapelketa nagusia abian da. Lehen finalaurrekoa Etxarri-Aranazen jokatu zen martxoaren 5ean. Saio horretan, Estitxu Arozena izan zen onena eta finalerako zuzenean sailkatzea lortu zuen. Ondotik, Erika lagoma, Julio Soto, Juan Mari Lopez, Oskar Estanga eta Joseba Beltza sailkatu ziren.

Joan den larunbatean Leitzan aritzekoak ziren Julen Zelaieta, Joxe Juan Zubieta «Etxabe», Bittor Elizagoien,

Miel Mari Elozegi, Diego Riaño eta Oier Laktuntza. Finalaurreko azken saioa martxoaren 18an jokatu da Atarabiako Kultur Etxean, 18:30etan. Xabier Silveira, Jon Barberena, Iñigo Ibarra, Iñigo Olaetxea, Iñaki Aleman eta Jon Elizetxe izanen dira protagonista

Finala berriz, apirilaren 1ean egingen da Elizondoko Lur dantzalekuan. Bertan, finalaurreko saio bakoitzeko irabazleak eta puntuazio onena eskuratu duten bertz bertz bertsolariak arituko dira.



ARGAZKIA: OINEZ

## Julio Sotok irabazi zuen III. Oinez sariko txapela

Julio Soto gorritiarrak jantzi zuen martxoaren 3an Berako Gure Txokoa elkartearen hirugarren Oinez Saria. Nafarroako Bertso Ligako lau bertsolari onenen artean jokatu zen txapela. Julio Sotorekin batera, Mizel Mateo bidarraitarra, Diego Riaño leitzarra eta Iñigo Olaetxea lesakarra aritu ziren, Julen Zelaieta beratarra aurkezle zutela. Epaila lanetan aritu ziren Ekintza Landa eta Joxema Leitzak Gorritiko bertsolari gaztea izendatu zuten aurtengo edizioko garailea, 40 afaltiarren arteko giro paregabean.

## 70 urte beranduago finala berriz ere Elizondon

Duela 70 urte, 1936an Nafarroako txapelketa lehen aldiz egin zenean, bertsolariak Bortzirietakoak, Maletrrekoak, Baztangoak edo Baigorri aldekoak ziren. Gaur egun, Na-

farroako bertsolaritza mundua zabalagoa da. Orotara 22 bertso eskola daude Nafarroa osoan barreiatuak eta 200 bat ikasle. Gainera, 39 ikastetxetan eskolak ematen dira.

70 urte beranduago finala berriz ere Elizondon egingen da, Lur dantzalekuan, apirilaren 1ean. Azken bi txapelak irabazi dituen Xabier Silveira lesakarra da aurtengoa ere favorito.

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK  
Bera - Telefon: 948 631 731 - 487 404 781

**BIZIKLETEN**  
SOLMENTIA ETA KONPONKETA  
BATERA - BIKI  
KONPONKETA, BIKI  
948 631 731

**borTIRUDI**  
borTirudi@telefonos.net  
KARTELAK - KAMUSETAK - BIZIKLA - TOKERITZAK (Bela dazka osari - dituenekin)  
FOTOKOPIA DIGITALAK - BORDAK - TUBU BOTTLEAK - PLANGAK  
ENKADRONAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEPOTIAK - BULEGO MATERIALA  
DISENYO GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - ERROTATZAK - IMPRENTA  
Entseku: 76. Teknologia Behe II - BERA - Tel/Fax: 948 631 731

**BERAKO UDAL HAUR ESKOLAN**  
2006-2007 IKASTURTERAKO  
AURREMATRIKULA EGITEKO  
AUKERA ZABALIK!!!!!!  
MARTXOAREN 27tik APIRILAREN 12ra

• Informazio gehiago:  
Berako Udal Haur Eskolan  
Eztegara pasealekua, 42  
Tel/Fax: 948 631 656  
e-posta: berakottikiak@begira.com

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**ZJ**  
**Zalain**  
jatetxea  
**Hostala**  
14 logela,  
bainu eta TBrekin  
E. Zabalak 104 • Tel. 948 631 076  
Bera - Nafarroa



**BERA**

## Liburutegiko ziber gela ofizialki inauguratu zen martxoaren 7an

Pertsona bakoitzak egunean ordu erdiz erabil dezake ordenagailua

**Amaia eta Ainhoa**

Liburutegiaren egoitzan Ziber Gela jarri du Udalak. Lehendik lanean ari baldin bazen ere, inaugurazio ofiziala martxoaren 7an izan zen, eguerdiko 12:00etan eta bertan Helena Santesteban (Berako alkatea), Jon Abril (Gaztedia Bartzordeko zinegotzia), Javier Trigo (Nafarroako Gobernuako Kirol eta Gaztedia Institutuko Zuzendaria), Ana Pineda (Nafarroako Gobernuako Gaztedia Zuzendariordea) eta Javier Esparza (Cederna-Garalurreko lehendakaria) izan ziren, bertze zenbait zinegotzi eta Cederna-Garalurreko elkarte-ko Arantxa Arregi eta Begoña Iparragirrekin batera. Orain bortz ordenagailu daude liburutegian eta Interneten erabilera doakoa izanen da erabiltzaileentzako. Zazpi mila euroko inbertsioa suposatu du honen baina hau Nafarroako Kirol eta Gaztedia Saileko Insituari esker posible izan da, 6.000 euroko laguntza eman baitu.

Internet zerbitzua eskaintzen duten ordenagailuak informazioa, ezagutza eta ikasketek



ARGAZKIA: GURE TXOKOA

### Gure Txokoa elkartearen 75. urteurreneko mus txapelketa lesakarrak irabazi zuten

Otsailaren 25ean ospatu zen Gure Txokoa Elkarteak, 75. urteurrena dela eta, antolatutako mus txapelketa. Guztira 46 bikote aritu ziren eta Iñigo Rodriguez eta German Terreros lesakarrak izan ziren irabazleak, 300 euro eta txapelak eramanez. Bigarrenak Jon Mikel Matxiarena eta Aitor Irazoki izan ziren eta Zubiondo Jatetxean afaria eta 50 euro eraman zituzten. Hirugarren postuan Xalba eta Ganix Zubieta aita- semeak gelditu ziren, Zalain Jatetxean afaria lortuz. Saillkapeneko laugarrenak Juan Tomas Otxoteko eta Ramon Zubieta izan ziren eta hauek Martikoko bi produktu lote eraman zituzten etxera. Gure Txokoa Elkarteak hagitx kontent dago giro paregabea izan zelako eta partehartzaile eta laguntzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie.

kin lotutako gaiak bilatzeko bakarrik erabili daitezke, joku edo foroetan ibiltzea ez da posible izanen. Hauek erabili ahal izateko liburutegiko bazkide txartela

beharko da, nahiz eta momentu zehatz bateko kontsulta egiteko Norkasun Agiria aurkeztea nahikoa izanen den. Ordenagailuaren bat erabiltzeko, alde zuzetik

erreserba telefonoz egitea komeni da, itxaron zerrenda baitago. Egunean gehienez 30 minutu erabili ditzake pertsona bakoitzak eta astean gehienez bi ordu.

**FLASH**

### Gurasoentzako ikastaro laburra

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak gurasoentzako ikastaro laburra antolatu du martxoarako: «Gozatu zuen haurrekin jostetan!» Muxiku haurtzaindegian izanen da, martxoaren 20, 22, 27 eta 29an arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Fermintxo Gartxitorenaren eskutik. Ikastarora haurrekin joaterik badago, ikastaroak irauten duen bitartean zaintzaileak izanen baitira.

### Escena dantza jaialdia martxoaren 18an

Azken urtetan, sasoi berean, Beran Escena Dantza Jaialdia antolatu da. Jaialdi honen berranean, aurtengoan, Addictos Breakdance & Logela Multimediak, "Klonk Hip Hop Dance" ikuskizuna eskainiko du. Martxoaren 18an izanen da, larunbatarekin, Kultur Etxean arratsaldeko 20:00etatik aintzineran.

### Herri kirol taldea osatzeko bilera

Gure Txokoa elkarteak, aurtengoan herri kirol taldea osatzeko asmoa du eta horretarako bilera egingen da ortziral honetan, martxoaren 17an, 20:00etan lamotenean. 16 urtetik goitiko neska eta mutilak bildu nahi dira, sokatiran nahiz proba konbinatuan aritzeko. Joan den urtean neska aritu ziren sokatiran eta ea aurten mutilak ere animatzen diren!

**ANSONEA** Jatetxea  
Egunero menua, karta eta arratsaldea menu bereziak  
Terraza estalia eta Ziberkafea  
Foran Plaza 1 - 948 631 150 - BERA

**SAROB** SANDERS pentsuak  
okindegia  
Etegarra, 41 - Tel: 948 630 999 - BERA

**BAR Botxo OSTATIA**  
© 948630052 • Zalain • BERA

## LESACA

# Pilotaleku egokia egiteko aukera ezberdinak aztertzen ari da Udala

Beheko Plaza 7ko lanak Zioz eraikuntza enpresak egingen ditu

## Aitor AROTZENA

Udal pilotalekua mol-datzeko eta gaur eguneko beharrei egokitzeko zer egiten ahal den aztertzen ari da Herriko Etxea. Gaur egun 300 lagunendako eserlekuak ditu eta telebista-irudiak hartzeko ez du erosotasunik eskaintzen. Udalak lehenbiziko azterketa bat agindu zuen, 500 eserlekuko frontoia egiteko behar lirakeen obren aurrekontua jakiteko. Pedro Burguera arkitektoek egindako txostenaren arabera, lanen hasierako aurrekontua 131.790,36 eurokoa litzateke. Juan Fermin Mitxelena alkateak adierazi duenez, «*horrelako gastua egin eta frontoi tiki batekin segituko genuke*». Beraz, aukera hau baztertu egin du Udalak eta bertze batzuk aztertzen ari da. Honela, gaur eguneko frontoiari «*norabidea aldatzea*» da udal arkitektoek eskuartean duten egitasmoa. Hau da, aspaldian hutsik dauden Arruperen etxeak (Irrimenea) bota eta fabrika aldera begira jarriko litzateke frontisa. Honela, gaur egun apartalekua dagoen aldera



ARGAZKIA: AITOR

**Umore ederrean joan dira aurtengo inauteak ere. Larunbat arratseko mozo-roak, igandeko zakozarren ibilaldia eta astelehen eguerdiko karrozen desfilea ezin hobe joan ziren. Baserrietako puxka biltzea egiten duten taldeen artean, Fraindarrak 25 laguneko koadrillan ibili ziren. Horietako aunitz gazteak ziren eta taldeak etorkizuna segurtatua duela erakutsi zuten. Argazkian, Bordaberriko atarian ageri dira dantzan.**

luzatuko litzateke frontoia. Alkateak aipatu digunez, «*hor lur azpiko aparkalekuak egitea aztertzen ari gara. Dena den, jakin beharko genuke Arruperen etxeak botatzeko arazorik ote dagoen. Frontisa fabrika aldera paratuz, gainera, hesi moduko bat egingen luke frontoiak*».

Bertze aukera bat frontoi berria Landaze-

laila inguruan egitea litzateke. «*Horretarako lekua badugu—dio Juan Fermin Mitxelena—baina herri erditik urrun xamar geldituko litzateke. Bertze aukerak huts egingen baligu ikusiko genuke...».*

## Beheko Plaza 7

Zioz S.L. eraikuntza enpresak erosiko du Beheko Plaza 7ko orubea

eta beretzat izanen da bertan dauden eraikinak bota eta prezio libreko 13 etxebizitza, garajetak eta lokalak eraikitzeko lana. Zioz enpresak 862.031,92 euro ordainduko ditio Udalari eta eraikin horren beheko solairuan geldituko den 247,76 metro koadroko lokala udalaren esku geldituko da.

Udalak ateratako

## FLASH

## Hainbat ekitaldi antolatu ditu Mairu Antzerki Tailerrak

Mairu Antzerki Tailerrak antolatuta hainbat ekitaldi izanen dira egunotan. Ortziralean, martxoaren 17an, Bihotz Bakartien Klubak «Arrakalak» poesia irakurraldia antolatu du Kattu ostatuan 22:00etan. Larunbatean, berriz, Mixel Etxekoparek eta Françoise Rossék musika emanaldia eskainiko dute udaletxeko aretoan 20:00etan. Hurrengo larunbatean, martxoaren 25ean, Antzerkiola Imaginarioaren «Fitola Balba Karpuki Tui» antzezlanak ikusgai izanen da Kasinoan 20:00etan. Martxoaren 26an, Mikelazulo taldearen «Erlorju Lehorrak» antzezlanak ikusgai izanen da Kasinoan 19:00etan.

## Hitzaldia

Martxoaren 24an, «Heziketa emozionala eta balioak» solasaldia eskainiko du Itziar Etxeberriak Kasinoan 17:00etan, Tantarumairu ikastolak antolatuta.

lehiaketara bi enpresa aurkeztu ziren. Provasna, bertze enpresaren eskaintza tekniko eta eskaintza ekonomikoa hobeki baloratu baldin baziren ere, eraikinaren publikoarentzako gehieneko salmenta prezioa dextente garestiago zuen eta arlo horretan lortutako puntuazioari esker, Ziozek eskuratuko du orubea.

**Toaialak-Mantelariak-Oheko mandriak**  
Eskolako haurren mantelak etab. bordatzen ditugu

Hemiko bestetarako, kamisetak, eta blus peña bakoitzaren logotipo eta izenekin bordatzen ditugu

Herri Plz. Berri 4 ra eta ikur bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESACA  
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

**Gasoila etxera eramaten dugu**

Tel. 948 63 74 60      31770 Lesaca (Nafarroa)

**GOZZ-ALDO**

31770 LESACA



## ETXALAR

# Inoiz baino karroza gehiago inaute astearteko desfilean

Eguraldi ederrarekin eta giro ezin hobean joan dira aurten

### Joseba eta Nerea

Inauteri ederrak izan dira aurtengoak. Jendearen partehartzea handia izan zen bai astelehenean bai asteartean. Gazteak aunitz mugitu ziren. Giro polita paratu zuten baserriz baserriko eskean eta karroza aunitz prestatu zituzten astearterako. Helduak ere ez zuten hutsik egin. Inauteriak azkeneko urteetako bizienak, mugituenak eta ikusgarrienak izan dira.

### JENDE AUNITZ KINTO BAZKARIETAN

Ikaragarria da urte tik urtera kinto bestak hartzen ari duen indarra. Dozena bat bazkari ritik goiti eman ziren herrian inauterien aitzineko igandean, otsailaren 25ean. 13-14 urtekoetatik hasita, 60 bat urtekoetara arte, inork ez zuen hutsik egin kinto bazkarietan. Arratsalde partean bete-beteak ageri ziren herriko bi os-

tatuak. Herri osoa elkarrekin. Andremari bes-tetan bezala, adin guztietako etxalartarrak juntuatu ziren besta egitera.

### 65 LAGUN BASERRIZ BASERRI ESKEAN

65 gazte baino gehiago elkartu ziren inauteri-astelehenean, ohiturari segituz, baserriz baserri eskean ibiltzeko. Erdiak goiko auzoetan ibili ziren. Bertze erdiak behekoetan. Gosariarekin hasi, bazkariarekin segitu eta afariarekin akabatu zen eguna. Otordu bitarte horietan, baserri gehienetara egin zuten bisita, jan, edan eta trikitixa doinuekin dantza pixko bat egiteko. Urte tik urtera arrakasta berdinarekin segitzen du egun honek.

### 8 KARROZA, ANTZERKI ETA GUZTI

Suhiltzaileen eta polizia foralaren antzerki ttiki batekin hasi zen inauterietako asteartea.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENAK UTZIA

### Astearteko karroza bat ageri da argazkian.

Sua itzaltzen nahiko komedi izan zuen mozo-rru-koadrila batek. Ondotik, bertze 8 karroza agertu ziren plaza baztertera. Denak batera desfile ikusgarria egin zuten. Pitufoak, tirole-sak, hippyak, formula 1-eko gidariak... denetarik ikusi ahal izan zen. Irri gustura egin zuen

jendeak. Desfilean parte hartu zutenek giro ederra paratu zuten. Eguerdiko bazkariarekin eta arratsaldeko beste giroarekin akautu ziren aurtengo inauteriak. Hurrengo urtean berriz.

### LARRABURUAN ERE INAUTERIAK

Duela urte batzuk arte

karroza bat egiten zuten urtero. Aspertuta edo, ohitura hori utzi eta bazkaltzera elkartzen dira orain Larraburuan jubilatutako kideak. Aurten ere koadrila ederra bildu zen asteartean. Bazkariaren aitzakian, inauteri politik osatu zituzten dantza eta beste giroan.

## Inauterietako gastuei buruz Altxatako oharra

Gaur egun Etxalarko inauterietako antolakuntzaz Altxata Kultur Elkarteak arduratzen da. Ohar honen bidez, inauterietako gastuen berri eman nahi dute:

### Astelehena:


- Otorduak: 1.275 euro.
- Trikitixa: 580 euro.
- Traktoreak: 120 euro.

### Asteartea:

- Pintxoak eta edaria: 207 euro
- Bazkaria: 680 euro.
- Trikitixa: 15 euro.

Gastu honen parte bat eskean ateratzen den diruarekin ordaintzen da, falta den dirua berriz otorduetan jendeari eskatzen zaio.

## ZUBIONDO JATETXEA



**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 - Altxata, 17 - BERA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

## ARANTZA

# Gazte Asanblada berrindartzen ari da ekimen berriak sortuz

Mozorroen eguna ez da larunbat honetan ospatuko

## Nerea ALTZURI

Arantzako Gazte Asanblada duela dozena bat urte sortu zen. Gogoz eta ilusioz, gazte talde batek lanari ekin zion herrian. Arantza Rock jaialdiak antolaketan lan handiena eskatzen badu ere, herriko nahiz Euskal Herriko bertze hainbat ekin-tzetan eta kanpainetan bere babesa eta laguntza ematen du Gazte Asanbladak: euskararen alde, presoen alde...

Azken urteotan gazteen elkartzeko arrazoia Arantza Rock jaialdira mugatu da nolabait eta bolada motelxeagoaren ondoren, berriz ere ekinen ari dira gazteak. Lehengo ordezkariak nahiz gazte belaunaldi berriak batu dira talde-dera eta hilabetean lehenengo ortziraleroko, 21:00-etan Ekaitza elkartean biltzen hasi dira. Bileren fruituak ageriak gelditu dira dagoeneko, proposamen eta ekimenak ugariak baitira Gazte Asanbladaren aldetik.



ARTXIBOKOA

Helduentzako dantza ikastaroa egiteko intentzioa du Gazte Asanbladak.

Joan den martxoaren 4ean ilunabarrean adibidez, Orsaren inguruko solasaldia izan zen Zahar Txokon. Hogeita hamar bat herritarrek parte hartu zuten hitzaldian. Jakina da aski hurbilekoa dela gaia eta nahasmen handia sortu duela lgantziko herritarren artean. "Ke beltzik ez" plataformako Xabier Telletxeak gaia jo-

rratu zuen eta Orsaren aldeko taldeko ordezkari-tza bilerara gonbidatua bazen ere, ez zen bertan izan.

Bertzalde, hilabeteko azken ortziraleroko presoen aldeko elkarretaratzeko eginen dira Herriko Etxeko plazan. Jen-de franko bildu da orain arte egindako bi alditan. Hitzordua ilunabarreko zortzietatik zortzi eta er-

dietara paratua da. Azkenik, helduen dantza ikastaroa egiteko intentzioa dago. Euskal dantzak ikasteko aukera izanen da eta guzia antolatzeko asmoa lotzen ari dira taldean.

Ikusten duzuen moduan, Gazte asanblada lanean ari da eta taldean partaide izan nahi duenak, aipatu moduan, hilabetean behin lehen

ortziraleroko bilera izaten da soziedadean.

## Mozorroen besta

Aintzineko alean jakitera eman baldin baguenen ere, larunbat honetan, martxoaren 18an ez da mozorroen eguna ospatuko. Halere, mozorroek antolakuntza lanean segitzen dute. Datoren berri izan bezain laister, atal honetan aditzera emanen dizuegu.

## Oporraldiak atzerrian

Urtero bezala, oraingo aldiaren ere bidaia ezberdinak antolatu dira. Maiatzean eta irailean, Ameriketako Estatu Batuetara eta Portugalera hurrenez hurren eginen dira. Udaberrikoan New York, San Francisco eta Las Vegas hiriak eza-gutuko dituzte batik bat eta taldean bartz aranz-tar joanen dira. Irailean berriz Portugalgo hiri-buru inguruak bisitatu-ko dituzte.

Tel. 948 634 179  
ARANTZA  
ATERPE  
ALBERGIA • IATETXEA

J. RAMOS  
zolak akutzilatuta eta  
barnizatzen ditut  
Tel. 948 637 173 LESAKA • Satelefono 437 834023

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak  
LARRALDEA LINDURRENBORDA  
LARRALDEA eta LINDURRENBORDA  
Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa  
LARRALDEA  
Tollereko sagardoa - LESAKA  
948 452121 - 626 814317  
LINDURRENBORDA  
Nabiz sagardoa - LESAKA  
948 637212

XATURETXE  
JATETXEA  
T: 948 637 027 - LESAKA

IRU BIDE  
Estrategia Asatza  
Bilatu TOLU - LESAKA  
Tel: 948 637 127



## IGANTZI

### Lehendakari berriak aukeratu dituzte Baratzondon eta Biltokin

Bautista Migelena eta Maria Jose Eugi dira arduradun berriak

#### Oskar TXOPERENA

Otsailaren 25ean izan zuten batzarra Baratzondo Elkarteko bazkideek. Ez zen, egia erran, batzar jendetsua izan. Junta osatzen duten 6 kideetat gain bertze 6 lagun bertzerik ez omen ziren agertu. Ez da batere berri ona, elkartearen osasunerako behinik behin. Kontua da joan zirenek urteko ekintzei eta kontuei egin zieten errepasoa bilerraren hasieran. Junta berria ere aukeratu zuten: Bautista Migelena izanen da lehendakari berria, Esperanza Elizaurdia idazkaria, Josetxo Arburuak jarraituko du lehendakariorde gisara, Amalia Seinek ere bertze urte bat egingen du diruzain lanetan eta Simeon Iguzkiagirre eta Carmen Hita izanen dira bokal berriak. Jakin dugunez, elkartean sukalde ttiki bat egiteko asmotan dabilta. Ea erabaki horrekin bazki-

deak pixka bat gehiago animatzen diren.

#### Biltokiko Batzarra

55 bazkide inguru bildu ziren martxoaren 4ko Biltoki Elkarteko batzarrean. Bi ordu terdi iraun zuen bilkuran gai mami-tsuak eztabaidatu zituzten: urteko ekintzak eta diru-kontuak aipatu zituen hasieran Joseba Migelena lehendakariak. Elkartearen urteko ohiko gastuak ikusita, bazkideen kuota egokitu beharra azpimarratu zuen ondotik eta ia ahobatez onartu zen igoe-ra. 2005ean bazkideen artean egindako galdeketa-eremaitzak ere aipatu zituzten segidan eta eztabaida interesgarria izan zen egindako eskaeren inguruan. Azkenik, batzordearen erdia berritzeko bozketak egin ziren eta bazkide hauek izan ziren aukeratuak: Maria Jose Eugi izan da hurrengo



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Ortzegun gizen egun biharamunean izan zen eskolako mozorro-antzerkia. Soinketa-gela gainezka egon zen ekitaldiak iraun zuen bitartean eta guraso sailtxo batek ateak ireki eta kanpotik begira egon behar izan zuen. Ederki landutako antzeslanen bitartez, hagitz ikuskizun polita eskaini zuten ikasle eta irakasleek. Zikloka aritu zirenez, lau zatitan banatu zuten ekitaldia.

bi urteetako lehendakaria eta Kontxi Bizente, Patxi Irazoki, Joxe Mari Goia, Joseba Urbistondo eta Iñigo Teletxea –bere burua eskainita– izanen dira batzordekideak.

#### Eskol-zar moldatzeko arazoak

Aspaldi samarreko proiektua da Eskol-zar moldatzea. XVIII mendearen azken aldera arte Herriko Etxea hartu zuen eta bertara eramana nahi da berriz ere. Kontua da bitan saiatu

dela Udala moldatzeko lanak enkantean ematen eta bitan eman gabe gelditu direla. Lehenbizikoan ez zen eskaintza bakar bat ere hartu eta bigarrenean aurkeztutako enpresa bakarrak ez zituen eskatzen ziren baldintza guztiak betetzen. Martxoaren 3ko bilkuran hirugarren deialdia egitea erabaki zuten, baldintzetan zerbait aldaketa eginda.

#### Zinegotzi berriak

Martxoaren 3an egindako osoko bilkuran har-

tu zituzten euren karguak bizinegotzi berriek. Aitzin horretan errana genuen Gema Sein eta Angel Urtxezi zirela bi dimisioek utzitako lekuak betetzeko hautagaiak. Karguak ez hartzeko asmoa adierazi zuten, ordea, eta hurrengo biak, Ana Sein eta Maria Jose Arburua, dira lantegi berrian hasiteko kredentzialak bildu dituztenak. Heldu den urtean hauteskundeak izanen direnez, urtea pasatuxea daukate Herriko Etxeko nondik norakoez jabetzeko.

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK  
sukalderako altzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891  
Faxa: 948 637 511

PERSIANAS TOLDOOS BAZTAN  
TOLDOAK sailmenta-konponketa-alkokairua-errotulazioa  
MOSKITERAK PERTSIANAK motorizatuak-venecianak  
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK  
Tel-Fax: 948 631 003  
Bidasoa, 66 behea - BERA

## BORTZIRIAK

# Euskara Mankomunitateak begirale, zaintzaile eta neurtzaileen lan-poltsa osatuko du

Izen emateko azken eguna martxoaren 31 izanen da

## ttipi-ttapa

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, hainbat zerbitzu eskaintzeko, batetik, eta Bortzirietako kultur eta gizarte eragile zein gurasoei eskuratzeko, bertetik, lan-poltsa eratu du. Izan ere, 2005eko abenduaren 19an egindako bileran, mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak 2006ko plangintza eta aurrekontua onetsi zituen, eta horien barne aurreikusita dago Bortzirietako "begirale, zaintzaile eta neurtzaileen" lan-poltsa sortzea.

Mankomunitateak urtero Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakan antolatzen dituen udaleku irekietan lanean aritzeko prest egonen diren begiraleen zerrenda



ARTXIBOKOA

Udalekuetan lanean aritzeko prest egonen diren begiraleen zerrenda nahi du osatu Bortzirietako Euskara Mankomunitateak.

nahi du osatu, baita aldi-aldian egiten dituen ikerketa lan zein neurketetan kanpo lana egiteko prest egonen dire-

nena ere. Berebat, Bortzirietako gizarte eta kultur eragileei begirale euskaldunen zerrenda nahi die eskuratu.

Bertetik, Bortzirietako gurasoei, eta bereziki, guraso erdaldunei, euren haurrak zaintzeko prest egonen di-

ren zaintzaile euskaldunen zerrenda nahi die eskuratu.

Izen emateko azken eguna martxoaren 31 izanen da, eta eskararak behar bezala bete Bortzirietako Euskara Mankomunitatean aurkeztu beharko dira.

Probak egun eta ordu desberdinetan eginen dira, apirilaren 11n eta 12an, inork lanpostu bat baino gehiagora aurkezteko asmoa izan dezakeelako.

Informazio gehiago nahi duenak, edo deialdia bera jaso nahi duenak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatera deitzea bertzerik ez du, 948 634 125 telefono-ra, edo helbide elektronikoa honetara idatzita eskatu: [bortziririak@euskalnet.net](mailto:bortziririak@euskalnet.net).

**JAKINA - GOZOTEKIA**

Altzate, 19-948630786 •BERA

**GAZTANDEGIA**

**Lizun** Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tinoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**ARTEKARI TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguru Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa bemi ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittoria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 404  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

**TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE**

**ANZABAL**

AGENZIA

- Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



## SUNBILLA

# Asteburu Kulturala martxoaren 25 eta 26an izanen da

Antzakaitz kultur taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu aurten ere

**Jaione O. A.**

Urtero bezala, Antzakaitz kultur taldeak asteburu kulturala antolatu du martxoaren 25 eta 26rako. Martxoaren 25ean, goizeko 10:30etan hurrekin Herri Kiroloak eta jokoak izanen dira; 11:30etan haur eta gurasoendako bideo emanaldia goiko eskolan; 12:00etan paella txapelketa; 13:30etan bazkaria, eta 16:00etan Gazte Jokoak, eguraldiaren arabera, frontoian edo eliz atariko belagian izanen dira ekitaldi hauek. 16:00etatik 18:30etara gaztelu puzgarriak eta jokoak frontoiko plazan, eta bitar-

tean, 17:30ak aldera, toki berean txokolatada izanen da. 18:00etan trikipoteoa herrian barna, eta 22:00ak aldera, kanpineko ostatuan, afaria, kantu zahar eta trikitez animaturik.

Igandean, martxoaren 26an, 10:00etatik 19:00etara herriko emakumeek egindako eskulanen erakusketa eta argazki zaharren erakusketak ikusgai egonen dira Ulibeltzak elkartearen. 17:00etan mus txapelketa Iturburu ostatuan.

Aurtengo asteburu kulturalari bukaera emateko, 19:00etan, zareder baten zozketa egi-



ARTXIBOKOA

Ttikienek herri kirolean eta jolas ezberdinetan parte hartzeko aukera izanen dute Asteburu Kulturalan.

nen da Ulibeltzak elkartearen.

### Ulibeltzak Mendi taldearen hurrengo ateraldia

Ulibeltzak mendi taldearen hurrengo ateraldia, martxoaren 19an izanen da, Baztanen dagoen Irubelakaskoa, 957 metrotako mendira. Irteera goizeko 8:00tan izanen da Iturburu ostatutik.

## Ulibeltzak elkarteko bertso saioa ETBn emanen dute

Joan den martxoaren 4an izandako bertso afarian lagun askorik bildu ez bazen ere, 32 denetara, giro pollita izan zen Ulibeltzak elkartearen. Angel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluzek saio bixi eta animatua egin zuten eta askotan barre algarra de-

xente eragin ere bertan bildu zirenei. 23:30etan hasi eta goizeko ordubiak arte luzatu zen bertso saioa, tartean atsedendaldi txiki bat egin zutelarik. «Hitzetik hortzera» Euskal Telebistako saioko kamarak ere egon ziren bertso saio guztia grabatzen.

**1951tik lantzeria-etxea**  
**Casa Cambra**

edredoi-azal nordikoak  
mantelak edredoi nordikoa  
ohe estalkiak  
maindireak  
kuxinak  
albornozak  
toailak

**UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA**

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

## DONEZTEBE

# Bazkide berriak egiteko epea ireki du Burrunba Gazte Kultur Elkarteak

Saharara elikagaiak eramateko 300 euroko laguntza ere eman du

## ttipi-ttapa

Doneztebeko Burrunba Gazte Kultur Elkarteak zenbait ekitaldi antolatu ditu datozen astetarako, martxoaren 3an egindako bileran hartutako erabakien ondorioz.

Hasteko, joan den larunbatean, martxoaren 11n, monologoak antolatu zituzten zineman, Bola mugimenduko gazteen eskutik. Egun bazuk lehenago, Burrunbako ordezkariak Udalarekin biltzekoak ziren, beraien ekimen eta asmoen berri emateko.

## BAZKIDE BERRIAK

Bertze aldetik, bazkide egiteko epe berria ere ireki da. Kontuan hartu behar da aurten hamar edo hamalau ekitaldi inguru antolatzeko asmoa duela Burrunbak eta bazkideek lehentasuna eta prezio hobeak izanen dituztela. Bazkide egin nahi duenak 687 475891 telefonora deitu behar du eta Anak hartuko dio. Aipatu be-



ARTXIBOKOA

Urte osoan hainbat ekitaldi antolatzen ditu Burrunba Gazte Kultur Elkarteak. Martxoaren 25ean mus txapelketako finala eta bazkaria izanen dute eta apirilaren 8an Astigarragako sagardotegi batera ateraldia.

har da, bertzalde, Burrunba elkarteak 300 euroko laguntza eman duela, Saharara elikagaiak eramateko.

Aitzinera begira, martxoaren 25ean, larunbatarekin, mus txapelketako finala jokatu

da eta ondotik bazkaria izanen dute. Apirilaren 8an, berriz, Astigarragako sagardotegiren batera ateraldia egiteko asmoa dute.

Apirileko azken aste hondarrean, Aretxabaletara joateko intentzioa

dute Burrunba Gazte Elkarteak. Elkartruke asteburua izatea nahi dute, ortziraletik igandera, eta aitzinago, oraindik zehaztu gabeko egunetan, Aretxabaletatik Doneztebera etorriko dira.

## FLASH

## Komertzianteen elkarretaratzea

Doneztebeko komertziantek elkarretaratzea egin zuten martxoaren 10ean udaletxe aitzinean. Bertan, Kariika Nagusian jarritako zutabeak kentzea eta trafikoa eta aparkalekuak arautzeko orduan, beraiek ere kontuan hartzea eskatu zuten. Doneztebe zerbitzuen herri bat dela eta inguruko herrietako bezeroak ere hurbiltzen direla kontuan hartzea eskatu diote Udalari. Merkatariek jakinarazi dutenez, udalarekin elkarlanean aritzeko prest daude, denen artean dezentzako egokia den soluzioa bilatzeko. Autoetan herriguneraino eta autoa kanpoaldean utzita oinez hurbiltzen diren mugikortasuna, herritarren interesekin nolabait uztatu nahi dituzte merkatariek.

## 1970 eta 1973ko kinto bazkariak apirilaren 1ean

Apirilaren 1ean, 1970 eta 1973an sortutako kinto bazkariak eginen dira. Zaharrenak Elgorriagako Hilarionen bazkalduko dute eta gazteenek Doneztebeko Ameztian. Izen ematea Titi ostatuan egin behar da, 10 euro ordainduta.

**Pitti**  
eskabazloak  
Tel: 616 513 491

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagariak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 458 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**Igeltsero lanak**  
egiten ditut  
larunbat  
eta igandetan

Deitu  
konpromezurik gabe

**Armando PINTO**  
☎ 680 461631



## LANA

# Doneztebeko bulegoan 15 langabetu guttiagok eman dute izena otsailean



700 langabetu zeuden hilabete bukaeran eskualdean

### ttipi-ttapa

Lau hilabetez etengabe igotzen aritu den eskualdeko langabezia kopuruak pixko bat beheiti egin du otsailean. Urtarrilaren bukaeran 715 ziren lan bilatzeko Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanak zutenak. Otsailaren hondarrean, berriz, 700 langun zeuden apuntatuak. Beraz, %2,10 apaldu da langabetu kopurua.

Beherakada hori nabari da industria arloan: urteko lehen hilabetean 214 langabetu zeuden eta geroztik 14 dira arlo horretan lana aurkitu dutenak. Bertze gainetarako arloetan, nekazaritzan, eraikuntzan, zerbitzuetan eta aitzinetik lanik egin ez duten pertsonetan aldaketa handirik ez da izan.

Langabeziaren beherakada apal hau gehien aprobetxatu dutenak gazteak eta gizonetakoak dira. 25 urte baino guttiago duten gizon zein emakumeetan 16 langabetu guttiago daude. Adin horretatik pasatu diren gizonetako artean ere 8 langabetu guttiago daude. Beraz, daturik txarrena, 25 urte baino gehiago dituzten emakumeetan aurkitzen da, urtariletik otsailera, adin-tarte horretako 9 emakume gehiago apuntatu baitira Doneztebeko Enplegu Bulegoko zerrendetan.

Joan den urteko otsaileko datuekin konparatuz, eskualdean 41 lagun gehiago daude langabezia.

H N HEMEN I Z I  
HI TEK EKIN I U U EZTEK

ru urr zt n  
zk zut n  
h t k k

HI TEC EST LE

HI TEC FLEXI LE

HI TEC SEGU

HI TEC M LTI LE

HI TEC SE UI LE

HI TEC VINCUL

HI TEC FIJ

HI TEC V I LE

HI TEC T E

HI TEC C ECIENTE

N f r r u r l Kutxa H t u r z l s n t z n zu,  
t h r n r e n, ru urr zt l zun ur tu uzu.  
r r h r r z n r n t z , r s t s u n t  
m l u t s u n r n .

www.rur.lk.com

**NAFARRAK  
RUR L KUTXA**

## KULTURA

# I. Jardunaldi Gastronomikoak egingen dira Etxalarko Bentan eta Berako Lenkonean

«Sukaldeen Fusioa» izenburupean, martxoaren 23an eta 30ean antolatu dira

## ttipi-ttapa

«Sukaldeen Fusioa» izenburupean, lehen-dabiziko jardunaldi gastronomikoak antolatu dituzte Etxalarko Bentan martxoaren 23an eta Berako Churrut hotelako Lenkonea jatetxean martxoaren 30ean. Bi egun hauetan, 20:00etan platerren aurkezpena egingen da eta 21:00etan degustazio afaria.

Jardunaldi hauetan parte hartzeko Etxalarko Bentara edo Churrut hotelera deitu behar da martxoaren 20a baino lehen, 948 635000 edo 948 625540 telefonotara. 60 euro ordaindu beharko dira (BEZa barne) eta prezio horretan aurkezpenak eta bi afariak sartuak daude.

Menuei dagokionez, Etxalarko Bentan honako hau izanen da martxoaren 23an: milorri platera, eneldo edo ezamihiluan prestatutako bakailu xafarekin eta sagardo binagretarekin; foie beroaren krema; ondoak parrilan donostiar erara prestatutako txangurroaz betea; bixigua parrillan bere errefritoarekin; txekor xolomo laukia parrillan eta parrillan egindako fruta-brotxeta.

Lenkonea jatetxean, astebete beranduago, menu hau izanen da: galeper-bularkiaren entsalada eskabetxe epelean, orein-eskalopinak eta baso-perretxikoak barazkitxo salteatuare-

kin; usoa plantxan bere saltsarekin; basurde-tartaleta gelatina-saltseatuaren gainean eta biolleta-krema mango izozkiarekin, fruitu gorrien ohatze gainean.

Bi afarietan, Iñurrieta Bodegak eta Cafes Azkoyen-ek eskainitako edari eta kafeak sartuak daude.



ARTXIBOKOA  
Etxalarko Bentan hasiko dira jardunaldiak martxoaren 23an, platerren aurkezpena eta degustazio afariarekin.

**DUPLIX ETA APARTAMENTUEN SALMENTA OROÑOZ-MUGAIRIN - BAZTAN**

Auzune pribatua, igerilekua, paddel, frontoia eta berdeguneekin.  
Neurri ezberdinetakoak 1, 2 eta 3 logeekin 125.050€tik aurrera (+BEZ).  
**Eraikitze lanetan ari dira.**

NATURAREN ERDI ERDIAN  
BERTIZKO NATUR  
PARKEAREN PAREAN  
Iruñetik 25min. bakarrik,  
Iruñetik 30min. eta Donostiatik 40min.

Haizea 2002 Karrobide 10 behean • Villava-Atarrabia (Nafarroa) 948 361 083  
info@haizea2002.com • www.haizea2002.com

**HAIZEA**



# betiko

P.V.C eta aluminio aroztegia

Ordoki Industrialdea, 31713 Arizkun (Nafarroa)

Tfnoa: 948 453 259 • Faxa: 948 453 423

e-posta: betikopvc@teleline.es

## Estalpe Etxiak



**PVC eta ALUMINIOarekin  
lan egiten dugu**



Betikon era guztietako  
itxierak egiten ditugu  
kolore desberdinetan:  
haritza  
piñua  
kaoba

## Pertsianak



**Fabrikanteak  
garenez  
preziorik  
onenak  
eskaintzen  
ditugu**



Leihoak eta  
kontraleihoak



Kolorezko  
kontraleihoak



**ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE • 948 453 259 telefonoan  
edo bisitatu gure erakusketa**



## MALERREKA

# Iturengo joaldunak Bartzelonako inauterietan izan ziren

Euskal Etxeko Sagardo Egunean parte hartu zuten trikitilariak

## Arkaitz MINDEGIA

Iturengo joaldunak Bartzelonako inauterietara joan ziren bertako desfilean parte hartuz. Otsailaren 25ean, goizean abiatu ziren Iturendik-Bartzelonara, hamar joaldun, hartza kontzen duena, herriko trikitilariak eta herritar batzuk. Larunbat arratsaldean bartzelonan eginen zen desfilean parte hartu zuten, hau da joaldunek eman zioten hasiera ibilbideari, ondotik trikitilariak eta, horiekin batera, baserriar jantziekin iturendarrak dantzan. Sekulako karrorza eta konpartsak parte hartu zuten. Igan-dean buelta egin zuten, bi egunez hagitz ongi pasatu ondotik.

## Bartzelona Euskal Etxeko II. Sagardo Eguna

Aurten ere ez dute hutsik egin Mirian Altzuri eta Arkaitz Mindegia trikitilariak Bartzelonako Euskal Etxeko II. Sagardo Egunean. Otsailaren 9tik 13ko asteburuan joan ziren, baina sagardo eguna otsailaren 11n ospatu zuten. 150 lagun bildu ziren Txotxa ireki eta besta giroan pasatzera. Bazkal ondotik kantuan aritzeko tartetxoak ere izan zuten eta 18:00ak aldera Bartzelonan dauden euskal tabernetan triki-poteoa

egin zuten, tarteka karriketara euskal dantzak dantzatzuz. Nahiz eta egun haundia hau izan gainontzerako egunetan ere afari eta bazkariak eginez ibili ziren bi gazte hauek eta hemengo doinuekin giro paregabea jarri zuten Bartzelonan. Segi horrela.

## Dantza ikastaroa

Joan den urteko arrakasta ikusita, lbintza kultur taldeak haur, gazte-txo eta helduen dantza ikastaroa hasi dute. Umeen taldean 18-20 haur, gazteetan 12 inguru eta helduetan 16. Norbaitek apuntatu nahi baldin badu oraindik ere egin daikete. Animatu.



ARGAZKIA: PELLO ARIZTEGI ETA MIREN ALTZURI

Katalunia aldean ibili da herritar koadrila bat: Goitian, joaldunak Bartzelonako inauterietan desfilean eta behegian, Miren eta Arkaitz trikitilariak Euskal Etxean, Mikel Urdangarin abeslari famatua panderojole dutela.

## PINTURAK

Esmalteak · Bernizak · Lasurea urpintura · Margo klase guziak

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

BONDEX urpintura

Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

Zalain auzoa  
Aceralia fabrikaren parean  
Tel: 948 630 240  
Mug: 627 622 333  
BERA

# PINTURAS

# PIKABEA MOLINERO



**Lur**  
diskoteka

martxoak **18** larunbata

**10€**  
+kontsumizioa

23:30

400  
kontzertud



HALCON NEGRO ("BLUES BROTHERS" tributoa)

**TXUTXIN IBAÑEZ**  
**+ JALISKO BAND**

+ARTISTA GONBIDATUAK

eta dena "JACINTO" k aurkeztuta



martxoak **25** larunbata

**8€**  
+kontsumizioa

01:00

**DISKOTEKA**  
SMSak, BIDEOAK, GIROA, MUSIKA...

apirilak **01** larunbata

**10€**  
+kontsumizioa

01:00

**JOSEINA**  
**ETXEBERRIA**



## GOIZUETA

# Karrozen arrakastak karnabalen antolakuntzari buruzko eztabaida sortu du

**Esteban AROTZENA**

Aurtengo asteartei-ñote ilunabarrean karrozen desfileak lortutako ustegabeko arrakastak festa haundi hauen antolakuntzari buruzko eztabaida bizia sortu du herrian.

Egun horretako arratsaldea eta ilunabarra ia osoa iñauterietako ekitaldi nagusia den zahidantzak bete izan du betidanik. Ondoren, 20:00etatik aurrera mozorrotzen da jendea, eta azkenengo urte hauetan bizpahiru karrozak ere festa edertzen lagundu dute. Kopuru hau,

karrozena alegia, biderkatu egin da aurten, 13ra ailegatu arte, bat bestea baino ederrago eta landuago gainera.

Desfileari bere denbora uzteagatik zahidantza ordu erdi bat lehenago hasi zen aurten, baina halere ia gaueko 9ak ziren karrozak plazaratu zirenerako. Honek hausnarketara eramandu du mozorrotzen taldea eta karrozek iñauterien programaren barrenean beste egun bat merezi eta behar dutenaren iritzia ahoz aho dabil herrian. Horrela, desfileak askoz dizdira



ARGAZKIA: ENERITZ A.

**Edurnetxuri eta zazpi ipotxen antzeppen xelebreak irabazi zuen Gazte Asanbladak emandako karroza onenaren saria.**

handiagoa izanen omen luke, eta aldi berean astearte arratsaldeko izar bakarra zahidantza izanen litzateke.

## Gazte Asanblada

Gai honekin bukatzeko, aurreko alean emandako informazio bat osatu beharrean gaude. Iñauterietako musikaren 3.450 euroen heren bana Udalak eta Umore Onak subentzionatzen zutela aitatu genuen, baina ahaztu egin zitzaigun

beste herena Gazte Asanbladak ordaintzen duela esatea.

## Herri Urrats eta Nafarroa Oinez

Hurrengo maiatzean Senperen ospatuko den Herri Urrats-i eta urrian Beran egin beharrekoa den Nafarroa Oinez-i 210na euroko dirulaguntza emanen die Herriko Etxeak.

## Floren Aoizen liburuaren aurkezpena

Herri Batasunako poli-

tikari ezaguna izandako Floren Aoizek idatzi duen «El jarrón roto» liburua aurkeztuko du herrian martxoaren 18an. 18:00etan hastekoa den ekitaldi hau Herriko Etxean egingen da.

## Antzerkia larunbatean Ganbaran

Leitzako Txinparta antzerki taldea herrian izanen da larunbat honetan, hilak 18. «Hazparneko anderea» antzezlana Ganbaran eskainiko da 20:00etan.

## ARESO

# Elizetxean egindako obrak ikusteko ateak ireki ziren

**Juana Mari SAIZAR**

Parrokiak ateak ireki zituen otsailaren 26an, eliz etxean egin dituzten obrak ikusteko. Meza ondoren eraikuntza berriak nola gelditu diren ezagutzeko aukera egon zen, eta hori ospatzeko hamaietakoa jarri zen han bildu zirenentzat. Esan beharra

dago hiru solairuak garbitzen herriko emakume eliztarrak egon direla musutruk. Haueta gehienak dira urte osoan elizaren garbiketara eta apaintze lanetan aritzen direnak ere, ixilik eta ezkutuan. Emakume hauei eskerrak eman nahi izan die parrokiak.

## Traste handien bilketa

Bolumen handiko zaborren bilketa hemen dik aurrera beste modu batera egingo da. Lehenik eta behin, 012 telefonora deitu behar da, han izena, helbidea, telefonoa eta zer motatako zaborra den esan behar da; altzariak, jos-



ARGAZKIA: JUANA MARI

**Mikel Olazabalek lesionatuta jarraitzen du. Uste baino gehiago kostako zaio frontonetara itzultzea.**

tailuak, koltxoiak, motorrak, ohearen armazoiak... Martxoaren 1etik aurrera hilabete-

ko bigarren asteazkenean biltzera pasako dira Emauseko Traperak.



**LEITZA**

## Manuel Lasarte bertsolariak herritarren omenaldia jaso du

Martxoaren 5ean ekitaldi xume bezain hunkigarria egin zioten

**tipi-ttapa**

Manuel Lasarte Arribillaga, 1927ko abenduaren 16an Franki baserrian jaiotako bertsolari apartari omenaldia eskaini zion Leitzako herriak martxoaren 5ean. Hamabi urte zituela, familiarekin Gipuzkoako Aiara joan eta gero Orion bizitu baldin bada ere, Leitza beti gogoan duela aipatu ohi du behin eta berriz Lasartek. Herrian ere ez dute ahazteko, eta horren erakusgarri izan zen omenaldi ekitaldia.

Eguerdi partean, Karpapean ohorezko makila eta argazki bat jaso zituen. Aurrekua dantzatu zioten eta gero, bertso batzuk ere kantatu zizkioten Erleta bertso eskolako ikasleek. Abesbatzak, txalapartariak, txistulariak eta beste hainbat herritarrek ere parte hartu zuten ekitaldian. Ondotik, Lasartek berak hitza hartu zuen eta eskerrak eman zizkien bildutakoek. Gaztetxoek eskai-



ARGAZKIA. PILAR FERNANDEZ

**Manuel Lasarte udaletxeko eskaileran behera, erakusketa bisitatu ondotik.**

nitako bertsoak gogoran, lehen eta orain bezala, gero ere bertsoak bizirik iraunen duela ziurtatu zuen. Ehun lagun bildu ziren Lasartekin bazkaltzera, eta bazkailondoan, Xebastian Li-

zaso eta Andoni Egañak bertso-saio ederra egin zuten.

**ERAKUSKETA ZABALIK**

Joan den urteko urritik Euskal Herriko zenbait herritan erakusgai

egon ondotik, bere sorrerrian martxoaren 4tik 26ra bitartean ikusgai egonen da «Manuel Lasarte: bizitza eta sor-kuntza» izeneko erakusketa. Kultur Taldearen ekimenez, udal-txean ikusgai dago astegunez eta larunbatean, 18:00etatik 20:00etara eta igandetan berri, eguerdi partean, 12:00etatik 14:00etara. Antolatzaileen esanetan, «*adineko jendeak ezagun du Lasarte, bere lana eta bizitza, eta bertso-gintza ere, baina gazteagoek ez. Orduan, hori ezagutzeko bide bat da erakusketarena*». Erakusketa hau Iñaki Hernandezek, Iñaki Zubizarretak eta Julian Belokik prestatu dute. Erakusketaren barrenean, martxoaren 17an, ostiralean, hitzaldi eta maingurua izanen da 19:00etan pleno-aretoan, Lasarteren bertso-gintzaren inguruan, bere zuzeneko ezagutzaren dutenen testigantzarekin, besteak beste.

## Berriki hildako futbolariak omenduko ditu Aurrerak

**tipi-ttapa**

Azken urte hauetan gazterik hil diren hiru futbolari omenaldia antolatu die Aurrerak apirilaren 8an. Zehazki, Iñaki Salbarredi, Unai Arzallus Gil eta Guillermo Gomez Lombana gogoratuko dituzte. Hiruek jokatu zuten Aurreran; lehendabizikoa, gainera, zuzendaritza batzordeko kide ere izan zen eta hirugarrena entrenatzailea denboraldi batzuetan. Hiruek oroimen gozua utzi zuten futbol taldean eta horregatik hartuko dute taldekide izandakoen omenaldia. Gaur eguneko eta garai bateko futbolariak bat egin dute ideiarekin eta egitaraua osatzen ari dira. Garai ezberdinetan Aurreran aritu direnekin taldeak osatu eta elkarren arteko partida batzuk jokatzeko ideia dute.

**Belarra**  
jatetxea  
948 450 306  
Amezitia karrika  
DONEZTEBE

luis cestau baraibar arkitekto teknikoa leitza 607204485 lucesba msn.com

gaztelu scl  
**iturgintza**  
kalefakzioa • saneamendua • gasa  
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

**Ark** arkitektura bulegoa  
Celia Lana Ranz  
Huarte Gotzai 7 - 31880 Leitza - 645008478 tel  
Erakuntza Hirigintza Udal-aholkularitza

## BAZTAN

# 0-3 urte arteko Haur Hezkuntza eskola aurten egin nahi du Udalak

15 eta 18 milioi euro arteko aurrekontua prestatzen ari da EA

## ttipi-ttapa

Eusko Alkartasuna-ko udal taldea gizarte zerbitzuen arloan oinarrituko diren udal aurrekontuak prestatzen ari da, Virginia Aleman alkateak eta Carlos Garaikoetxea eta Iñigo Iturralde zinegotziek prentsaurrekoan jakinarazi dutenez. Honela, urte honetarako proiektu nagusia, 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntza eskola eraikitzea izanen da. Virginia Alemanek adierazi zuenez, «ezin dugu Nafarroako Gobernuak bere ardura zaitia hartzearen esperotan egon. Horregatik, proiektua egiten dugu eta Nafarroako Gobernuari dirulaguntza ematea eskatuko diogu».

Inbertsiorik handiena lan honetan joanen da, 900.000 euro, baina herrietako eskolak mantentzen eta hobetzen 120.000 euro gastatuko dira; Erratzu eta Arizkongo mediku kontsulten teilatuak moldatzen, bideak eta pistak



ARGAZKIA: ONDIKOL

Udaleko EAko zinegotziak ari dira aurtengo udal aurrekontua prestatzen. UPN-ren adostasuna espero dute.

egokitzen eta kirol instalazioetan ere joanen dira sosak. Arraiozen aspalditik eskatzen ari diren kanposantua handitzeko lanak ere eginen dira, 42.000 eurotan. Hamabortz herriei eskaintzen zaien laguntza ere handituko da aurtun, baita herrietako alkateei ematen zaien dirua ere. Aldudeko errepidea egiteko ere aurri-

kudia dago aurtun. Inbertsioak 3,52 milioi eurokoak dira eta Udalak %61a ordainduko du, 2,13 milioi. Inbertsio honi aurre egiteko, «dugun zorpetze mailarekin guziz bideragarria» den mailegua eskatuko du Balleko Udalak. Gainerako %39a Nafarroako Gobernuak ordainduko du.

Aurtengo udal au-

rrekontua 15 eta 18 milioi euro bitartekoa izanen dela kalkulatu du EAk. Udalean gehien-go osoa dutenez, aurrekontua onartzeko arazorik izanen ez badute ere, UPNren adostasuna espero dute, baina ez dakite lortuko duten: «Lehenbiziko bileran zinegotzi bakarra agertuz» gogorarazi zuen Virginia Alemanek.

## FLASH

## Baztandarren Biltzarren kultur eskaintza zabala

Baztandarren Biltzarra elkarteak bere kultur eskaintzarekin segitzen du. Martxoaren 20tik 24rat Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean argazki erakusketa izanen da, Itoitzek mehatxaturiko bizilagunen batzordearen eskutik. Martxoaren 24an, ortzileria, batzorde honetako ki-deek mintzaldia eskainiko dute leku berean 19:30etan. Martxoaren 31n, «Feminizidua Hego Amerikan» mintzaldia izanen da Gloria Cano, Peruko Giza Eskubideen aldeko elkarteko abokatuaren eskutik, hau ere Elizondoko Arizkunenean, 19:30etan.

## Garazi ipuin kontalaria Baztango eskoletan

Martxoaren 13,14 eta 15ean Baztango eskoletarat Garazi ipuin kontalaria etorri da. Garazi euskalduna da, eta ama euskalduna eta aita saharatarra ditu. Hiru eguneko egonaldia aprobetxatuz Saharako afe-raren berria zabaldu du, beraz haurrentako ez ezik, helduendako ere hitzaldia eman zuen astelehenean Iruritako Gizarte Bilgunean.



## BAZTAN

### ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

ELIZONDON EREKI DUGU!

**abartan**  
CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA  
• ateak • leihoak • kontraleihoak  
• manparak  
• zeramikak (fabrikako prezioetan)  
• kontsumo guburko kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO  
Tel. 948 561 152 • 657 264 025 • 696 970 725  
makera@abartan.es



## BAZTAN

# Zigako ostatu zaharra berriz ere martxan jarriko dute

Eskolako berritze lanak ere aitzinera doaz

Juani MENDIBURU

Duela 50 urte baino gehiago itxi zen Zigako ostatu zaharra. 1945tik 1946ra soldaduen kuartela izan zen, bertan jangelak, arma gelak eta kartzela izan zituzten. Urte hauen ondotik herriko eskola izan zen. Gaur egun berriz, landetxea da eta laister berriz ere herriko ostatu ere izanen da. Herriarrek ilusio handiarekin hartu dute berria, baita jabeei beraien animoak eta adostasuna erakutsi ere. Bikote gazte batek erosi zuen duela urte pare bat ostatu zaharra. Etxe handia izanik, aterabide aunitz emateko aukera duenez, lehenbiziko solairuan landetxea jarri zuten. Orain, herriari bizitasun gehiago emateko asmoarekin, ostatu zaharraren atea irekiko dituzte. Emaztea sukaldaria izanik, bertako sukaldaritza izanen du oinarri nagusia. Egunero

egonen da irekia, eta joku gela ere izanen du.

### San Lorentzo parrokiari buruz estudioa

Zigako eliza egoera arriskutsuan dago, batez ere arkuperia eta seroraren bizitokia. Azken hau bi solairuko bizitoki ikusgarria da, baina egoera negargarrian dago. Eliza berritzeko eskaera egin zuten iaz eta ezezkoa jaso zuten. Kokaenak ez dio onik egiten, haizeak, euriak... gehiago hondatu baitu. Gan den urtean, Corpas kontseilaria eliza ikusteratara gonbidatu zuen apezak eta eliza ederraren egoera ikusirik larritu egin zen. Orain, estudio bat egin dute 500.000 euroko aurrekontuarekin, eta dagoeneko Iruñeko Gotzaierako baimena eta laguntza jaso dute. Herriko jendearen kolaborazioa eta berritzeko nahia ere ikaragarria izan da.



ARGAZKIA: JUANI MENDIBURU

### Eskolako berritze lanak aitzinera doaz

Joan den urteko otsailean, barruko estrukturan matxurengatik atea itxi behar izan zituen herriko eskolak. Goitik behera berritu behar izan dute eta dagoeneko igeltseroek beraien lanak amaitutzat eman dituzte. Hala ere oraindik ez dago klaseak ematen hasteko moduan, baina laister, haurrek herriko eskolara bueltatzeko aukera izanen dute.

### Apezaren etxea enkantean aterako da

Zigako plazan kokaturik dagoen Apezaren Etxe, denbora laburrez herriko eskola izan da. Eskolako berritze lanak direla eta, haurrek apezaren etxean ematen dituzte klaseak. Honen ondorioz, enkantean ateratzeko epea giberatu egin da. Aterako den dirua, San Lorentzo parrokiaren berritze lanetan inbertituko da. Apezaren baimenarekin, herriko bestetan, ostatu moduan erabiltzen dute gazteek beheko so-

laurua. Hauek ere irtenbideren bat bilatzen hasi beharko dute.

### Batzar aretoa

Orain arte, Zigako eskolako hirugarren solairua hutsik zegoen. Batzarrak eta bilkurak egiteko leku falta dela eta, berrikuntza lanak aprobetxatuz, batzar aretoa prestatu dute solairu horretan. Herriaren beharretarako prest egonen da aretoa, haurrentzako edo gazteentzako ere erabilgarria izanen da. Hauek ere, urtetik urtera leku falta gehiago somatzen baitute herrian.

### Giro onean joan dira inauteak

Aurtengoan, berrikuntza batekin etorri dira Zigako gazteak, garai bateko "zapal apainduak" berreskuratutako baitituzte. Lan handia hartu dute ohitura zahar hau berreskuratzeko, ordu aunitz pasatu baitituzte zapal hauek eskuz josten. Kolorez betetak, buruan jarri eta etxez etxe, baseriz baserri ibili dira aurten ere herrian, Egozkue, Zigaurre, eta Auzkue auzoetan.

## ZUGARRAMURDI

# Hiru ezkilak kenduta eliza mutu gelditu da

Tenorea ematen zuena Valladoliden urtu eta berria eginen dute

## Margari eta Koro

Zugarramurdiko eliza mutu gelditu zaigu: otsailaren 27an dorreko hiru ezkilak kendu baitzituzten.

Tenorea ematen zuen ezkila arras hondatua zen, eta hau Valladolidera eramanez burdina urtu eta berri egiteko. Bertze biak berri, pieza batzuk gaizki eta zahartuak zizutuzten eta Corellara igorri dituzte, han halako lanetan aritzen den enpresa berezi batek moldatzeko.

Gauzak ongi ganez, hemendik bi hilabetetara berri itzulian izanen ditugu hiru ezkilak, eta orduan azkeneko moldaketa eginen diete: ezkil haundiari eta tenorea ematen duenari mekanismo elektronikoa ja-

riko diete, horrek erran nahi du hortik aintzina ez dela ez orenaren mantenimendua egin behar, eta ezta ere ezkila eskuz jo beharko (ezkil ttikia bai).

Argazkietan ageritako bezala, ikusgarria izan zen plazan jarria zen gruak egin zuen hiru ezkilak jausteko lana, batez ere haundiena jausteko, 1.500 kilo baititu, eta jende franko hurbildu zen espektakulua ikustera.

## Xaretako taldea ETBko Mihi Luze saioan

ETB-1ek berri ematen hasia duen "Mihi Luze" lehiaketan Xaretako talde batek parte hartu beharra du, eta horien artean zuamurdiarren bat ere izanen da.



ARGAZKIA: MARGARI  
Ezkilak kentzeko lanak ikusgarriak izan ziren.

Programa hunen gabaketa martxoaren 24eko arratsaldean izanen da, eta ikusle bezala grabaketa ikustera gateko aukera ere bada, talde bakoitzak 40 lagun eramaten ahal baititu.

Grabaketa hau ikustera gan nahi duen guziak "Marixan" ostatuan eman behar du izena, martxoaren 20a baino lehen.



egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo · braulio iñarte 33,1º D · 31700  
948210963 iruñea · paulino caballero 15,1º A · 31002

**Bierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Iturriztuz aurkezten · Tfona: 948 592 043  
ORONÓZ · MUGAIRI

HERBIBO  
ETREBO  
LENTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
Tf: 0559547519  
Majaxan eta Vainique  
CABA

**ZOANSA**  
SEAT  
VW  
MITSUBISHI  
HYUNDAI  
AUDI  
MARKA GUZTIEN KONPONKETA  
Banarta, 2 · Alkalaga industrialdea  
LESAKA (samereta Beratik)  
Tel: 948 625 555 · Faxa: 948 625 505

**MARTIKO**  
Ahatekietan adituak eta arituak  
Martiko Pot Zaleak, s/n.  
31780 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625016  
Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
Martikorekin zu zeu sukaldari.



**SARA**



UTZITAKO ARGAZKIA

Sarako Izarra errugbi taldea oso-osorik.

## Errugbian kolpe txarra hartu du Sarako Izarrak

Stéphane Barneixek denbora emanen beharko du zelaietatik kanpo

**Laetitia eta Sandrine**

Ohiki Sarako Izarra errugbi taldeak zelaiaren alde beretaz hitz eginarazten du, baina gaur kolpatuak aipatzen dira. Zoritxarrez, Saul taldearen kontra, Stéphane Barneix zauritua izan da. Ospitaletik at-

ratu eta bere taldeak bihotz hunkidura ainitzekin errezibitu du. Egun hortan Sarako Izarrak galdu du, baina istripu horren ondotik, galtzea garrantzi gabe zen. Stéphane denbora aintzientzat zelaietik urrundua izanen da. Senior

taldeak Stéphane es-kasa sendituko du, teknikalari ona delakotz baita ere bere gizarte-kalitateentzat. Taldearen aitzindaria zen, denek entzuten zutena eta errespetatzen.

Desiratzen diogu sendatze on eta laster

bat, eta bereziki hitzordua ematen diote, elkartearen baitan parte hartzeko, mireskude eta nahiarekin, orain arte egin duen bezala.

Emitzen aldetik, denetarik agertzen da. Lehen taldearentzat, bigaltzeen ondotik etxean, fi-

nalerat ailegatzeko zaila izanen da, baina talde horrek ez du bere azken hitza errana.

Atsegina erreserba taldearen aldetik heldu da, ezin pentsatua zena batzuentzat duela hila labete batzu.

Txapelketa aitzinera doa; berdin segitzen badin badute, erdi finala jostatzen ahalko dute, baina oraindik lan egin beharko da.

Zuzendariak, kontent eta fier dira beren Senior taldeaz. Aurten, jokalaria aintz bildu direlakotz, erreserba talde bat egin ahal da, urte aintzez ahantzia izan dena.

Eskertu behar dira ere, kausitze horrentzat, lau trebetzaileak, Michel Brisson, Jean Marie Albistur, Jean Philippe Amorena eta Beñat Iraola. Ahantzi gabe behar dira sustatu eta zoriondu Sarako Izarrako haur eta gazte guzikiak eta beren altxatzaileak larunbat guziz hor direnak beren nahia erakusteko.

Beraiei esker da, errugbia oraindik bizi dela Saran.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

## SENPERE

# Herriko etxeak neurriak hartu ditu toki publikoetan jaberik gabe dauden zakurrentzat

Mota ainitzeko kirola egiteko instalazioak eraiki dituzte

## Franck DOLOSOR

Herriko hautetsiek neurriak hartu dituzte berriki karriketan barna jaberik gabe ibilki diren zakurren kontra. Auzo gehienetan zakur ainitz ibiltzen da etxez etxe jaberik gabe. Zakur hauek trabak eta kalteak sortzen dituzte zonbait herriarren ustez. Herriko Etxearen neurri hunen arabera, zakur bat jaberik gabe agertzen delarik herriko polizia deitu behar da, abereak za-

kurtegi publiko batetara eraman ditzaten. Jabeak 23 euroko isuna pagatu behar du zakurra berri hartzeko. Gainerat, 7,5 euro pagatu behar du aberea zakurtegian egon den egun bakotxarentzat. Neurri hunekin, herriak espero du jabeek hurribilagotik zainduko ditzutela beren zakurrak. Jende ainitz ibiltzen da oinez lakuaren inguruan eta maiz jaberik gabe dauden bortzapsei za-

kurren ondoan pastu behar dute. Animaliak maiz borrokan ari dira.

## Kirol instalazioak errugbi zelai ondoan eta aintziran

66 000 euro balio duten kirol zelaiak sortu dituzte errugby zelaia eta gazteluaren artean. Ikasleek eta gazteek balia dezaketen eremu huntan saski baloieko hiru eremu daude. Sas-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Mozorroren eguna martxoaren 4ean ospatu da herriari. Ihauterien momenturik biziena arratsaldeko desfilean izan zen. Argazkian, moztorro lehiaketan sarituak izan diren haur batzuk agertzen dira.**

kiak goratasun desberdinean eman dituzte adin desberdinetako, eta beraz altura desberdinetako gazteak jostatzeko gisan. Esku baloian eta futbollean aritzeko ateak ere ezarri dituzte eta guzi horien inguruan korrika egiteko bide bat dago. Eremu hori Herriko Etxeak

eraiki du eskoletako kirol irakasleekin gogoe-tak egin eta. Aintziraren inguruan ere kirola egiteko tresna berriak ezarri dituzte. Petankan aritzeko eremu bat sortzea deliberatu dute hautetsiek. Eremu hori kanpingarren aparkalekuaren ondoan egingen da.



# SAN FRANCISCO JAVIER

## Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa

ELIZONDO • Tfnoa. • Faxa: 948 581 808 • e-posta: cpelizon@pnte.cfnavarra.es

Martxoaren  
20tik  
31ra

ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ



## SENPERE

# Bai Euskarari ziurtagiriaren aurkezpena egin zen



### ttiipi-ttapa

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak Bai Euskarari Akordioa eta Engaia-mendu Prozesua aurkeztu zuten Senperen martxoaren 8an. Hone-tan, Kontseiluko idazkari nagusiak, Euskal Konfederazioko lehen-dakariak, Senpereko auzapezak eta Senpereko saltzaile eta herritar batek parte hartu zuten.

Gaur egun ia ehun Bai Euskarari Ziurtagiri daude Iparraldean, Sara, Azkain eta Ezpeleta artean eta Ziburu eta Senperen prozesua hasi berria da. Kontseiluko Idazkari Nagusiak, Xabier Mendigurenek, instituzioak, Herriko Etxea eta euskalgintza elkarrekin aritzearen garrantzia azpimarratu du.

Euskal Konfederazioko Mixel Etxeberrik, bere aldetik, proiektu honek euskararen normalkuntza prozesuan duen garrantzia nabarmendu du.

Senpereko Herriko Etxeak eragile pribatuek euskararen alde lan egitera deitu ditu. Gogorazi du Senpereko Herriko Etxeak 2002an sinatu zuela administrazioa euskalduntzeko hitzarmena Euskal Konfederazioarekin. «*Momentua da denek, eragile pribatuek ere, indarra zentzu berean egin dezagun*», azaldu du auzapezak, Christine Bessonartek.

MATRIKULAZIO EPEA MARTXOAREN 20tik 31ra

**BAZTAN**  
**IKASTOLA**  
UDAL ESKOLA PUBLIKOA

Mendimutua.org 31700 Elizate, Baztan. T.948 46 24 46 • 948 56 22 56. Emaila baztan@izemta.net

## HERIOTZAK

**Romualdo Elizondo Elizondo**, Arantzakoa, martxoaren 6an, 82 urte.  
**Fermina Larraia Etxenike**, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 22an, 93 urte.  
**Timoteo Orzanco Armendariz**, Elizondon, otsailaren 28an, 86 urte.  
**Elena Martiarena Arregi**, Oieretikoa, otsailaren 28an, 91 urte.  
**Francisco Jose Irigoien Iparrea**, Erratzukoa, martxoaren 3an, 54 urte.  
**Maria Catalina Ugarte Larregi**, Azpilkuetakoa, martxoaren 6an, 96 urte.  
**Josefa Gamio Aintzinena**, Lekarozkoa, martxoaren 6an, 94 urte.  
**Daniel Ariztimuño Zabaleta**, Leitzakoa, otsailaren 25ean, 31 urte.  
**Miguel Zamora Arruti**, Oieretikoa, otsailaren 26an, 74 urte.  
**Anselmo Mayordomo Martin**, Berakoa, otsailaren 26an, 46 urte.  
**Martina Bidegain Seminario**, Urdazubikoa, otsailaren 26an, 89 urte.  
**Maria Telletxea Telletxea**, Berakoa, otsailaren 27an, 84 urte.  
**Esperanza Sarratea Gamio**, NARBARTEKOA, martxoaren 1ean, 71 urte.  
**Patxiko Irigoien Iparrea**, Erratzukoa, martxoaren 3an, 54 urte.  
**Mercedes Juanenea Lasarte**, Saldiasakoa, martxoaren 3an, 73 urte.  
**Francisco Javier Martikorena Sanzberro**, Etxalarkoa, otsailaren 4an, 76 urte.  
**Romualdo Elizondo Elizondo**, Arantzakoa, martxoaren 6an, 82 urte.  
**Santiago Larralde Mitxelena**, Lesakakoa, martxoaren 7an, 59 urte.  
**Maria Asuncion Zubiri Etxandi**, Elizondon, martxoaren 7an, 74 urte.

## SORTZEAK

**Oihana Lakosta Aiuso**, Zigakoa, otsailaren 15ean.  
**Jon Garbalena Barrio**, Arizkungoa, otsailaren 21ean.  
**Xuban Bengoetxea Bidegain**, Erratzukoa, otsailaren 24an.  
**Nahia Urzaiz Cuartero**, Elizondokoa, otsailaren 25ean.  
**Iker Telletxea Diaz**, Elizondokoa, otsailaren 24an.  
**Xabier Sarobe Herrera**, Elizondokoa, otsailaren 24an.  
**Léni Vella Barneix**, Sarakoa, otsailaren 24an.

## EZKONTZAK

**Jean Marc Raymond Merino** eta **Sophie Odile Paulette Fournier**, Sarakoak, martxoaren 3an.

**Sagrado Corazón**  
Ikastetxea

Tfnoa: 948 63 00 09 • scorazonbera@planalfa.es

Aurre-inskripzio epea  
Martxoaren 20tik 31era

GURE ESKOLA TTIKIA DA,  
BAINA BADA TOKIA DENENTZAT.  
HEMEN EUSKARAZ IKASTEN DA,  
BAITA GAZTELANIAZ  
ETA MUGAN GAUDENEZ  
FRANTSESEZ ERE.  
JESUSEN ESKUTIK  
PERTSONAK IZATEN  
IKASTEN DUGU.

A ZER GOXOA, ...  
LOREEN USAINA ...  
TXORIEN KANTAK ...  
GURE LORATEGIETAN  
BELARREAN ETZANDA...



**PILOTA**

## Aimar Olaizola goizuetarra eskuz binakako finalean izanen da

Zearrarekin batera, Irujo eta Eulateren kontra arituko da igandean

**A.A.**  
Esku Pilota Enpresen Ligak antolatzen duen eskuz binakako pilota txapelketaren finala jokatu da igande honetan, martxoaren 19an, Gasteizko Ogeta pilotalekuan. Bertan protagonista, Aimar Olaizola goizuetarra eta Oier Zearra, alde batetik eta Martinez de Irujo eta Martinez de Eulate bertetik, izanen dira.

Finalerdietako bi partidak irabazi zituzten. Irujok eta Eulatek, Patxi Ruiz eta Oinatz Bengoetxea kanporatu zituzten. Lehen partidari, 1-5 galtzen ari zela min hartu zuen Leitzako aurrelariak eta lehenbiziko puntua Irujo eta Eulaterentzat izan zen. Bigarren partidari 22-9 irabazi zieten Oinatz ordez aritu zen Esain-i eta Patxi Ruiz-i.

Bertze finalerdian, lan gehiago egin behar izan zuten Aimarrek eta Oierrek, Asier Olaizola goizuetarra eta Oronoz-Mugairiko Iñaki Otxan-



**Aimar Olaizolak Goizuetara beste txapel bat ekartzeko aukera izanen du igandean, oraingoan eskuz binakakoa.**

dorenaren kontra. Lehen partidari 22-14 irabazi zuten eta bigarren 22-15, baina emaitzak erakusten duena baino dexente gehiago sufritu zuten.

Beraz, momentuko bi aurrelari onenak, Irujo eta Aimar izanen dira aurrez aurre igandeko finalean, gibelean saio puntu ederrean dau-

den bi atzelariren laguntza izanen dutelarik. Lauen artean Irujok bakarrik daki binakako txapela janztea zer den. Iberoakoak hiru aldiz parte hartu du binakako txapelketan eta hiruetan finalista izan da. Marka ederra! Aimar Olaizola behin izan da finalean baina hura galdu egin zuen. Dena den, goi-

zuetarrak marka polita egiteko aukera izanen du, irabaziz gero, buruz burukoa, lau terdikoa eta binakakoa segidan irabaziko babiluzke. Zearrak baditu urte batzuk txapelketa nagusian parte hartzen baina ez da inoiz finalean sartu eta Eulatek, bere lehen partehartzean finalerako txartela eskuratu du.



**PERTSONAIA**

**Patxi VILA**

### Profesionalerik lehen garaipena Paris-Niza lasterketan eskuratu du

Patxi Vila, Italiako Lampire taldean ari den txirrindulari beratarra profesionalerik lehen garaipena eskuratu zuen martxoaren 8an, Paris-Nizako hirugarren etapari. Profesionalerik daramazkin sei urteetan langile finala izan da Vila, taldeburuentzat morroi lan aparta egin duena. Horren erakusgarri iazko Giroan Alpeetan Cuneo eta Simonirentzat egindako lan ikusgarria. Baina iazko bueltan pentsaeraz aldatzen hasi omen zen: «Beldur handi bat edukitzen dut betidanik, txirrindularitza garaiaren bat lortu gabe uztea, eta saiatzen hasi nintzen». Saiatu eta egin: Julienas eta Saint-Etienne arteko 168,5 kilometroko etapari, ihesean sartu, azkenean Floyd Landis estatubatuarrekin bakarrik gelditu eta etapa irabazi zuen. Sailkapen orokorra ere bi hauen esku zegoen, baina hau idazterakoan oraindik ez zen akautua Pariz-Niza laisterketa. Vilarentzat handia litzateke!

## Txaruta eta Erreka elkarteak III. Berria txapelketako final laurdenetan sartu dira

Irurtzun eta Elorrioko taldeen kontra arituko dira

**A.A.**  
Txaruta eta Erreka pilota elkarteak III. Berria txapelketako final laurdenetan jokatu dute. Bi elkarteak, final zortzirenetan zerranda

buruak kanporatu zituzten: Txarutak Hernani menperatu zuen, 62-50 eta Errekak gauza bera egin zuen Iruñeko Oberenarekin (51-40). Kontuan hartu be-

har da aurtengo Goizuetako Umore Onak ezin izan duela talderik osatu eta hauen ordez sartuak ziren zerrandaburuen artean Iruñekoak. Gauzak honela, as-

te hondar honetan jokatu dituzte final laurdenetako partidak. Txaruta martxoaren 18an, larunbatean, arituko da Irurtzuneko Hernani eta Erreka, igandean, martxoaren 19an, Elorrioko Berrietoaren kontra Altzan. Kanporaketa gaituzte gero, Txaruta eta Errekaren arteko finalerdia jokatu litzateke.

## DATUAK...

• Xabier Altzugarai Pierola aurrelari almandoztarrak profesioaletan debuta eginen du Lesakan apirilaren 1ean Garfe enpresaren eskutik. Zezeagarekin bikote eginez, Berraondo eta Almandoz lesakarraren kontra arituko da.

• 22 urte egin ditu otsailean eta urte batzuetako eskarmentua badu afizionatu mailan. Sei urte zituela hasi zen pilotan Txarutarekin eta duela urte batzuk Errekara pasatu zen.

• Elizondoko Laboralean mekanizatua eta administrari ikasketak eginak ditu.



ARGAZKIA: JUANI MENDIBURU

**Xabier ALTZUGARAI** *Almandozko pilotari profesional berria*

## «Kolpe handirik ez dudanez, aitzinean tantoa abudo akitzea gustatzen zait»

**Aitor AROTZENA**

Xabier Altzugarai, Almandozko Jauregian sortutako aurrelaria kontent dago, apirilaren 1ean debutatuko baitu profesioaletan Lesakan, GARFE enpresarekin eskutik. Zezeaga pilotari historikoa gibelean duela, Berraondo eta Jexux Mari Almandoz lesakarraren kontra arituko da: «Hasteko, partida zaila!» dio. Profesioaletan hasi baino lehen, afizionatuetan egin duen ibilbidea errepasatzeko eskatudiogu almandoztarrari: «Zizurren duela hiru urte lau terdiko txapelketa irabazi nuen; duela bi urte Nafarroako Federazioak selekzionatu eta Kubako Olinpiadetara gan ginen eta irabazi genuen binaka eta azken urteetan Uhartean lau terdian finalerdietara ailegatu izan naiz; gan den urtean Zarautzen azpitxapeldun izan ginen». Bistan denez, binaka eta lau terdian aritzeko dohaiak ditu Altzugaraiak, baina buruz buru kantxa osoan guttitan aritutakoa da. «Gustoena eta eskutik gu-

**«Elias Pierola osabak bi paretak efekoarekin arras ongi egiten zituen, baina nik ez dut bere jokua. Pilota ere orduan motelagoa izaten zen eta orai fuerteagoa izaten da»**

*ttien sufritzen dudana binaka da. Lau terdian ere dexente poliki moldatzen naiz, baina hobe binaka».*

Profesioaletako bidean sarturik, ez du Xabierrek bere burua sobera estutu nahi: «Momentuz hortxe egon nahi dut, Garfen pilotari nahiko onak badaude beraiekin ikasteko eta egiten gateko asmoarekin». Udan, gainera, Aspekoein batera ere aritzen dira jaialdi batzuetan.

**«PIEROLAREN ILOBA NAIZ, BAINA PILOTA AUNITZ ALDATU DA ORDUTIK»**

Pilotarako bere ezaugarri nagusiak zein diren galdetuz gero, hone-

la erantzun digu aurrelari almandoztarrak: «Kolpe handirik ez dut, baina sake nahiko polita dut eta aitzinean errematatzea gustatzen zait, gantxo... Gibelera emateko kolperik ez dudanez, aitzinean tantoa lehenbailen akitzea gustatzen zait». Gaur egun profesioaletan dauden aurrelarietan Irujo, Aimar eta batez ere Titi gustatzen zaizkio. 1978-79ko binakako txapelketan, Antton Maiz arantzarrarekin batera txapeldun izan zen Elias Pierolaren iloba da Xabier Altzugarai, baina gaztea ez da konparazioen beldur: «Momentuz ez da inor konparatzen hasi. Behin ikusi nuen bere bideo bat eta bi paretak efekoarekin arras ongi egiten zituen. Nik ez dut bera bezalako jokoa egiten, nik gantxo eta boleak nahiago ditut. Pilota bera ere aunitz aldatu da: orduan motelagoa zen eta orai fuerteagoa izaten da, arras diferentea». Halere, aholku batzuk ematen dizkio osabak eta bere partidak ikustera jotzen da tarteka.



## HERRI KIROLA

# Binakako Urrezko Aizkora txapelketa irabazi du Mindegiak

Senosiainekin batera, Arrospide eta Mugertza menperatu zituen

A.A.

Antonio Senosiainek eta Miel Mindegiak eraman zuten otsailaren 26an Binakako Urrezko Aizkolarien txapela, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jokaturako finalean. Azkenean, denek uste baino alde handiagoa egon zen, irabazleek eta Arrospide eta Mugertza finalisten artean, nahiz eta alde hori txanda libreko azkeneko saioan erabaki zen. Saio hori hasi baino lehen pare-parean zeuden bi bikoteak.

Bi kana-erdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar ziztuen azkeneko saio horretan. Ekinaldia hasi bezain laster ikusi zen, garai-pena Nafarroa aldera etorriko zela. Lehen enborretik atera zuten alde, eta lehenbiziko oin-



ARTXIBOKOA

Azkeneko lau hilabeteetan hiru txapel jantzi ditu Mindegiak, 56 urterekin.

bikoan dena erabakita gelditu zen. Lehendik ere Mugertza eta Arrospide, batez ere Leaburukoa, ez zebiltzan lan horretan ongi, eta lehen oinbikoan adarra atera

zitzaien. Mindegiak bere bigarren txapela lortu du Binakakoan, eta lehena Senosiainek.

Miel Mindegia gus-tura zegoen. Ez da gu-txiagorako, 56 urterekin

txapelak pilotzen segitzen baitu. Ezkurrakoz pozik gogoratu zuenez, «57 urte egin behar ditut, azkeneko lau hilabeteetan hiru txapel jantzi ditut».

## MENDI DUATLOIA

# Denboraldi berria hasi du Mixel Aginagak

ttipi-ttapa

Mixel Aginaga kirolari nabartearrak mendi duatloi denboraldi berri bati ekin dio. Aginagaren helburua, apirilaren 9an, Argentinako Patagonia inguruko San Martin de los Andes herrian jokaturako den bigarren Green Cup Mendi Duatloi Munduko txapelketan parte hartzea da. Txapelketa honetan zazpi kilometro terdi lasterka, 30 mendi bizikletan eta azkeneko zazpi terdiak berriz ere lasterka egin behar dituzte parte-hartzaileek.

Helburu hori bistan izanik, denboraldi honetako lehendabiziko proba otsailaren 12an izan zuen Mixel Aginagak, Kataluniako L'Ametlla del Vallés herrian. 7 kilometro lasterka, 21 mendi bizikletan eta azken hiru terdiak berriz ere lasterka egin behar izan zituzten 248 kirolariek. Aginaga seigarren izan zen sailkapenean.

Otsailaren 26an, berriz ere Katalunian izan zen Aginaga, Surria herrian. Hemen 6 kilometro lasterka, 18 mendi bizikletan eta 3 lasterka egin behar izan zituen, ibilbide arras gogor batean. Euriaren eraginez lohi handia ere izan zuten. Halere, esperientzia aberasgarria izan zen Mixel Aginaga nabartearrentzat eta bosgarren postuan akautu zuen.

## PILOTA

# Iñaki Larralde lesakarra bigarren mailako finalean

ASPEko adarra irabazi du Arizmendirekin batera

A.A.

Iñaki Larralde aurrelari lesakarrak eta Baxenafarroako Donamartiriko Arizmendik jokaturako dute bigarren mailako binakako txapelketaren final handia Asegarceko bikote irabazlearen aurka, otsailaren 27an Tolosan Aspeko adarrean nagusitu eta gero. Lesakarrak eta baxenafartarrak 22 eta 20 menderatu zituzten finalean

Jon Apezetxea Goizuetako profesional berria eta Auxkin, gorabehera aunitz izan zituen lehia batean.

Asegarceko adarrean, Mendizabal eta Iñaki Eskudero eratsundarrak, Arretxe II eta Beginoren kontra eta Saralegi eta Urrizelkik, Retegi Bi eta Mendizabalen kontra jokatzekoak zituzten finalerdiak eta finala larunbat honetan jokaturako dute Labriten.



# AGENDA

egunez  
egun

## MENDI ATERALDIAK

### BAZTAN

**Martxoaren 19an**  
Astigarragara ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

**Martxoaren 26an**  
Artzamendira ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

### SUNBILLA

**Martxoaren 19an**  
Irubelakaskoara ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

## SOLASALDIAK

### LESAKA

**Martxoaren 24n** «Heziketa emozionala eta balioak» solasaldia emanen du euskaraz Itziar Etxeberriak Kasinoan 17:00etan.  
Antolatzailea: Tantiurumairu ikastola.

### BERA

**Martxoaren 24n**  
«Ekonomiaren menpe bizi al da kultura?» solasaldia eskainiko du Alizia Sturtzek liburutegian 20:30etan.  
Antolatzailea: Espidobaita elkarteak.

**Martxoaren 30ean** «Como superar el duelo» solasaldia eskainiko dute Mirentxu Goienetxe, Raquel Mateo eta Ainhoa Arburuak Kultur Etxean, 19:00etan.  
Antolatzailea: Uxua Emakume Taldea.

## LIBURU AURKEZPENAK

### ETXALAR

**Martxoaren 22an** «La vieja herida» bere azken liburua aurkeztuko du Floren Aozik Kultur Etxean 20:00etan.

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Martxoaren 11n** «Halcon Negro (Blues Brothers tributoa)», Txutxin Ibañez eta Jalisko Band Lur diskotekan 23:30etan.

## TELEBISTAKO TXOKOA



## AINHOA ARBURUA PSIKOLOGOAREKIN

# Adimen eritasun kronikoez ortziraleko erreportaian

Hurrengo asteetan Anasaps-Dizdira elkarteak proiektu berria martxan paratuko du Etxalarren. Adimen eritasun kronikoa duten gaixoei eta euren familiakoei zuzendutako proiektua izanen da. Antolatzaileek "arnas hartzeko familiarako programa" paratu diote izena. Ainhoa Arburua psikologoa da proiektuaren bultzatzaile nagusia. Egitasmo berri honen aitzakian, ttipi-ttapako estudioetara gonbidatu du Etxalarko psikologoa Joseba Olagarai lankideak. Adimen eritasun kronikoen inguruko solasaldia izanen dute ortziral honetan. Eskizofrenia eta "trastorno bipolarra" izeneko gaixotasunez arituko dira

bertzeak bertze. Drogen kontsumoak gaitz psikologikoetan duen eragina eta gazteek drogen inguruan duten jarrera ere izanen dute hizpide.

Eskualdean geroz eta jende gehiago du adimen eritasun kroniko bat eta horietako aunitz gazteak izaten dira. Drogen kontsumoan dagoen ezjakintasanak eta droga desberdinen nahasketak gaitz psikologikoak geroz eta adin tikiagoko jenderengan afektatzen du. Dударik gabe, gazte nahiz helduentzat aski interesgarria izanen da erreportaje berezi hau. Oroitu, ortziral honetan, albistegiaren ondotik Ttipi-Ttapa Telebistan.

## DISKAK



### Amorrúa

**IKER GOENAGA**  
ELKAR, 2006

«Amorrúa», Iker Goenaga Zizurkilgo trikitilariaren hirugarren diskoa, melodia sujerikor eta kantu ederren aukeraketa paregabea izateaz gain, berezko identitate etniko eta kulturalen transmisioaren alde egindako lan paregabea duzu; bertan erabiltzen den lengoia erabat berriezalea izanik, emozio bizien iraunkortasuna bermatzen duen publiko gaztearekin berehala konektatzeko sortua baita. Goenagaren lehen bi diskoetan, espresibitate aparta eta naturaltasun gozoa barra-barra islatzen baziren, 14 pieza biltzen dituen «Amorrúa» lan honetan, kualitate haietaz gain, produkzio artistikoaren diseinu eraginkorra nabaria da, Angel Unzu arduratu da lan horretaz eta diskoaren aire harrortu, jatorrizko etorria indartu eta artistari darrion sinesgarritasuna areagotzea lortu du.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(Otsailaren 24tik martxoaren 3ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 43,00 € (-2,00)

**Zerri gizena**  
1,145 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,450 € Kg/bizirik. (=)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,80 (=)

**1.koa** 3,58 (=)

**2.koa** 3,39 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,92 (=)

**1.koa** 3,70 (=)

**2.koa** 3,47 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

### Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 220,00 (=)

idixkoak 270,00 (=)

### Aretze nabarrak:

urruak 180,00 (=)

idixkoak 225,00 (=)

### Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,95/3,01

Zaldi-behorrak: 1,67/1,87

### Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 4,70/5,60

8-10 kilokoak: 3,70/4,40



# larunbatero **donezteben** giro paregabea

apirilak **1** GAUPASA  
 apirilak **29** GAUPASA  
 maiatzak **20** GAUPASA  
 ekainak **3** GAUPASA  
 ekainak **24** KONTZERTUA

ilunabar eta gauzez

PERKUSIO TALDEAK KARRIKETAN  
(hilabete 1 bai, bestea ez)

ekainak **24** KONTZERTUA  
**JALISKO Band**  
Sta. Luzia Plazan




TXUPITOK  
DOAN  
(Perkusioa ez denean)



**ZOZKETAK!!**  
2 pertsonendako  
**bidai bat**  
zozketatuko da  
kontzertu bakoitzean

BIXEN OSTATUA

Bar IRRINTZI

BAR

Bar AMEZTIA  
Asador

Bar EL CAFE

## JATETXEETAN GAZTEENTZAT MENU BEREZIAK

- Arozena jatetxea.....948450443
- Belarra jatetxea.....948450306
- Hilarion jatetxea.....948450003
- Hostal Rte. Ameztia.....948450028
- Hostal Rte. Santamaria...948450043
- Kontxa gasolindegia.....948450787

Egin erreserba aitzinetik

00-34 **948 63 54 58**

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.  
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da  
(nahi izanez gero argazkiarekin).  
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ADOS

- **ELIZONDO.**  
- Eraikuntza berriko azken pisua aparkalekuarekin salgai.
- 2. eskuko apartamentu, pisu eta unifamiliarra salgai.
- **BERA**  
- Lur eremuak salgai.
- **DONEZTEBE.**  
- Unifamiliarra 2.000 m<sup>2</sup>ko partzelarekin salgai.
- 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, erreforma behar du.
- **BAZTAN.**  
- Erreformatuak eta erreformatzeko dauden bordak salgai.
- **NARBARTE.**  
- PROMOZIO BERRIA: 2 eta 3 gelako pisuak aparkaleku eta trasteroarekin salgai. Informa zaitez!

948 451 841 / 948580705  
www.ados-inmobiliaria.com

## ANZABAL

Santiago 15 - ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580804  
anzabal@anzabal.com

### BAZTAN-BIDASOA

Lur, etxe, baserri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.

### BAZTAN-BIDASOA

Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

## BULDAIN INMOBILIARIA

LEKUNBERRIn eraiki behar diren 40 etxebizitza salgai. 2 logela, sukalde, egongela, bainugela, garaje-plaza, trasteroa, igogai-  
© 948 510 534 bulegoa

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**BERA.** Pisua salgai Ezte-gara 22an. 3 logela, egongela, sukalde, bainugela. Kafefakzioarekin eta igogailuarekin. Partikularretik partikularrera. ☎ 948 631602 edo 610 627059.

**LEITZA.** Pisua salgai. ☎ 667 851039.

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

**BERA-LESACA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 665 753486.

**DONEZTEBE** edo inguruan pisu ttiika edo apartamentu mobleztatua errantan hartu nahi da. ☎ 639 559154.

**BERA** edo inguruan pisu ttiika errentan hartuko nuke, garaje tiki batekin. ☎ 629 971838.

### ETXEBIZITZAK

#### 105 Etxe konpartituak

**IRUÑA.** Pisukidea behar du-gu Alde Zaharrear. Etxe haundia, berogailu eta igogailuarekin. ☎ 637 555357 edo 658 284857.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 107 Saldu

**LEITZA.** Gaztañaga taberna traspasatzen da. 120.000 euro. Erraztasunak ematen dira. ☎ 699 361194.

**BAZTAN.** 140 m<sup>2</sup>ko nabe industrialia salgai. Toki eta ego-  
era onean. ☎ 647 773124.

### ADOS INMOBILIARIA

#### BERA

Altzate kalean, Vasconiaren ondoan, 170 m<sup>2</sup>ko lokala salgai.

☎ 948 451 841

### ADOS INMOBILIARIA

#### DONEZTEBE

Caja Navarraren ondoan 140 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai.

☎ 948 451 841

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 109 Errentan eman

**BERA.** Garajea errentan emateko, Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizikletak gordetzeko. ☎ 948 630881.

## Lan bila zabilta?

LAN ESKAINTZA	LAN ESKAINTZA
<b>LANGILEAK</b> Obrak, gidariak, zaborra, garbitzaileak, Udaletxetarako behar dira. <b>PELOIAK eta OFIZIOKO LANGILEAK ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENIMENDUA</b> - Igeltseroak - Elektrizistak - Iturginak Orduategia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00	<b>GARBITZAILEAK</b> Lanpostu finkoak: - Eraikin publikoak - Ikastetxeak - Ospitalak Soldata: 900 € Orduategia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00 <b>SUKALDE LAGUNTZAILEA</b> - Sukaldariak - Kamareroak Lanpostu finkoak Orduategia: Betatik 15etara
Presta zaitez. Informazioa dohan. <b>948 199 596</b>	

### LANA

#### 301 Eskariak

**Administraria** eskaintzen da lan egiteko. Esperientziaduna eta oso arduratsua. Euskalduna naiz. ☎ 670 218613.

**Neska arduratsu** batek externa moduan eta orduka lan eginen luke haurrak eta zaharrak zaintzen. ☎ 680 799047.

**Egunerdiz** lan egiten ari den irakasle bat goizetan (umeak zaintzen, etxeak garbitzen, lantegi batean...) lan egiteko eskaintzen da. ☎ 605 764089.

**C+E gidabaimena** duen kamioi gidaria eskaintzen da lan egiteko. ☎ 690 629693.

**Emakume euskaldun** bat eskaintzen da edozein lanetan aritzeko (zaharrak zaintzeko, garbiketarako, zaharrek gaua pasatzeko...). ☎ 635 204339 (19:00etatik 21:00etara).

**BERA.** Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko edo haurrak edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia eta

## BORDA

Pladur lanak

Tel-Fax: 948 580 705  
Mug: 948 580 705

ERREFORMAK  
DEKORAZIOA  
SABAI MODULARRAK  
ISOLAMENDUAK  
sua - zarata hezetasuna

### ROSA BELZUNEGI

#### PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272011 (IRUÑA)

☎ 948 580975

Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

## ARANTZA

Zurgindegia

Klinika guzietako zurgin lanak  
Eskatu zure kontuak konpromisoarekin gabe

Donostia - Euzkoan  
Tel: 948 534 542 - 447 810 144  
Euzkoan - 447 810 144

informeekin. ☎ 654 027179.

**Gizon** batek edozein lan eginen luke. Ostalaritzan eta sukaldean esperientziaduna. ☎ 627 387079.



**LANA**  
**302 Eskaintzak**

**BERA.** Ibardingo Benta Mi-guelen jendea behar da lan ezberdinetan aritzeko. ☎ 948 631394.

**SUNBILLA.** Kanpinean sukaldaria behar da, 13:00etatik 16:00etara eta 19:30etatik 22:30etara. ☎ 948 450540 edo 618 521032.

**BERA.** Ostatu-jatetxe batean ortzegunetik igandera lan egiteko sukaldaria behar da, plater konbinatuak eta menuak prestatzeko (8 orduko kontratua). ☎ 654 385363.

**OITZ.** Oizko Ostatuan lan egiteko kamarera behar da. ☎ 948 451951.

**ETXALAR.** Etxalarko Bentan barrarako kamareroa behar da. ☎ 948 635000.

**Mantenimendua.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lo-rezainak, palistak, gidariak. Udaletxetarako lanpostu libre. 1.600 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

**Administrari laguntzaileak.** Abudo sartzeko unibertsitatetan, udaletxetan. 1.500 €/hilabetean. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Aireportuak.** Bete behar dute: bezeroari arreta, aire kontrolatzaileak, suhiltzaileak. Lanpostu finkoak. Informa-zaitzez. ☎ 948 199596.

**Elbarri fsikoak.** %33a baino gehiago baduzu, lortu lanpostu finkoa udaletxetan. Plaza erreserbatuak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Harreragileak, telefonistak.** Lanpostu librean udaletxetan eta Nafarroako Diputazioan. 1.100 €/hilabetean. Informa-zaitzez. ☎ 948 199596.

**Hautzaindegi publikoak:** Bete behar dute haur zaindari eta hezitzaile lanpostuak. Informazioa doan. ☎ 948 199596

**Laborategia.** Nafarroako Diputazioarako lanpostu libreak; teknikoak, laguntzaileak, sanitarioak, kimikoak. Infor-

**TALLERES SANTESTEBAN**  
☎ 948 450282 • DONEZTEBE**KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-10 HILABETEKOAK)**

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

**ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK**

EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK



mazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukaldariak, sukalde laguntzaileak.** Abudo sartzeko Nafarroako Diputazioan. Asteburuak libre. 1600 €/hilabetea. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Gidariak, txoferrak.** Abudo sartzeko udaletxetan, Nafarroako Diputazioan. 1800 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

**MOTORRA**  
**501 Salerosketak**

**Patrol GR** luzea salgai, 1998koa, 117.000 km, egoera onean. ☎ 616 243530.

**Audi A3** 130 cv autoa salgai. 37.000 km. Beltza metalizatua, extra ugari, egoera oso onean. ☎ 646 986448.

**Toyota Yaris** 1.3 autoa salgai, 2001ekoa. ☎ 669993950.

**Opel Corsa** autoa salgai, NA-AK. Egoera onean. 2.000 euro. ☎ 687 736973.

**Galopper** 4x4 laburra salgai, 2.5TD Intercoler, 2000. urtekoa. 46.000 km. Aitzineko defentsa kromatua, erremolke engantzea. 10.200 euro. ☎ 617 264039.

**Suzuki Santana** 1.3 motza salgai, NA-V. 3.000 euro. ☎ 616 170177.

**Citroen Xantia** 1.8i salgai, 5 atekoa. 161.000 km. Egoera

**SAMPI ARAGON ZOANSA**

Seat Ibiza TDI (aukeran), Seat Ibiza gasolina, Audi A3 TDI, Audi A3 1.8T, Golf TDI (aukeran), Seat Toledo TDI, Seat Toledo gasolina, Seat Leon (aukeran), Citroen Saxo D, Citroen ZX TD, Citroen Xsara Picasso, Lada Niva (aukeran), Suzuki Vitara gasolina, Mitsubishi Montero 5 ate (2.8 TD eta 2.5 TD)  
☎ 948450354 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

**MENDAUR MOTOR**  
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:** Mitsubishi DID 3-5 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Opel Frontera Sport, Terrano II Sport 3 atekoa, Galloper 5 ate, Seat Ibiza 5 atekoa, Mazda 2 eta Citroen Evasion 2.0 HDI, SUZUKIAK ETA VITARA AUKERAN



era onean. 2.700 euro. 690 629687.

**Renault 19** Chamade autoa salgai. 700 euro. ☎ 639 316337.

**Gas-Gas** markako trial motoa salgai, 1997koa. Hagitz egoera onean dago, kasik erabili gabea. ☎ 649 801997.

**BMW 330** CI beltza salgai, 89.000 km, 2001 urtekoa. 18ko llantak, extra ugari-ekin. ☎ 646 587893.

**Jeep Cherokee TD** urdina salgai, 1993 urtekoa. Errekanbio ugari-ekin. ☎ 646 587893.

**Jeep Grand Cherokee** 2.5 TD autoa salgai, 1999. urtekoa. Egoera onean. ☎ 667 668504.

**Renault 19** 1.9 Diesela salgai, egoera onean. ☎ 651 074865.

**DENETARIK****702 Salerosketak**

Egoera onean dauden **egongelako altzariak** salgai. ☎ 948635141 edo 687871456. Janaria bero mantentzeko **termoa salgai**, oso gutxierabilia, jatetxe batentzat edo jangela baterako egokia. Aukera ona. ☎ 610257467 edo 948 635234.

**Garbigailua** salgai. Egoera

**ARIZKUN**

Ordoki industri eremuan

**NABE BERRIAK**

Nahi diren m<sup>2</sup>-ak

**ADOS INMOBILIARIA**  
948 451841 Doneztebe  
948 580705 Elizondo

**GURIA INMOBILIARIA**  
649 805974 Irun

**IGANTZIKO HERRIKO ETXEA****OBRA KONTRATATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA**

- Kontratuaren xedea: «Eskolzar eraikuntza Igantziko Udaleko bulegoak jartzeko moldatzeko lanak».
- Adjudikatzeko modua: prentsan iragarritako prozedura negoziatua.
- Lizitazioaren aurrekontua: 159.965,61 euro, BEZa barne.
- Ez da eskatzen enpresaren klasifikazioirik.
- Obrak egiteko epea: Hamar hilabete (10).
- Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Igantziko Udaleko erregistro orokorrean 2006ko martxoaren 22ko eguerdiko ordu biak arte.
- Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausula partikularren pleguan adierazten direnak.
- Proiektua eta baldintza administratiboaren plegua interesatuen eskura dago, Udaleko idazkaritzan.

Igantzin, bi mila eta seiko martxoaren 6an.  
ALKATEA, Jesus Maria Begino Garro

onean. ☎ 687 950373.

**Ilar gorria** saltzeko. ☎ 948 634011.

**Ezindu edo elbarriendako tresnak** salgai: ospitaleko ohe elektrikoa (90 cm.), garabi edo grua elektrikoa, bainurako aulkia, eta gurgil-aulki elektrikoa «Samba» markakoa. ☎ 620 208645.

**Solarium-a**, pelukeriko materiala eta muebleak salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 670 218232 edo 652 746800.

**Tela** zaharrak erosten ditut. ☎ 686 983377.


**DENETARIK**  
**703 Bertzelakoak**

**Elkar izan boluntario takdea.** Beharren bat baduzu, parte hartu nahi baduzu, deitu 012 telefonora eta harremanean jarriko gara.

**Golden Retriever** pedigridun zakur ar txuria badut, emeren bat emaltzeko. ☎ 686 983377.



**JOSE MARIK** martxoaren 19an urteak beteko ditu. Zorionak Jose Mari zure familiaren partetik.



Ultzamako Gernoniango **JAVIER DOMENOK** martxoaren 19an 9 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama, arreba Maria eta familia guzieren partetik.



**BITTORI CRUZ** zorionak eta muxu haundi bat familiako guzieren partetik.



**NAIKARI PAGO-LA** zorionak eta muxu haundi bat aitai eta amabixiren partetik.



Elgorriagako **FRAN** eta **UNAI IBARRA** aita-semeek martxoaren 9an eta 3an urteak beteko dituzte. Zorionak emaztea, amaxo eta familia guzieren partetik. Muxu haundi bana.



**BEÑAT YANCI** igantziarrak martxoaren 11n 5 urte bete ditu. Zorionak maitia. Zure familia osoaren partetik.



**MARIA YANCI** igantziarrak martxoaren 19an 8 urte beteko ditu. Igantzi eta Etxalarko familien partetik zorion handienak. Muxu bat, preziosa.



Aranoko **ENERITZ SALABERRIA NARBARTEK** urte bat beteko du martxoaren 22an. Zorionak etxeko denon partetik. Eneritzek urte bat bete du alajaña, txikia da baña, haur pixkor bizia da handi baten aña begi urdinak ditu gorputza apaña, arpegi horrek edoziñ dezake engaña, zoragarria degu etxeko sorgiña.



**GOIO MINDEGIA ELETA** doneztebarrak 6 urte beteko ditu martxoaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat Oizko familiaren partetik.



**GOIO MINDEGIA ELETA** doneztebarrak 6 urte beteko ditu martxoaren 22an. Aita, ama, Maider eta Nerearen partetik muxu haundi bat.



Martxoaren 15ean **UXUEK** 5 urte beteko ditu. Zorionak osaba, izeba eta Garaziren partetik. Muxu haundi bat potxola!



Zorionak **IRENE ZELAIETARI** bere 22. urtebetetze egunean. Muxu haundi bat etxeko familiaren partetik.



**GARAZI SAROBE SANSIÑENA** elizondarrak martxoaren 16an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat Lesaka eta Iruñeko osabazibere partetik.



Zorionak gure biloba **GARAZI** bere hirugarren urtebetetzean, Lesakako atxiki eta amabixiren partetik.



Elizondoko **MIKEL** eta **FERNANDO BALLARENAK** urteak beteko dituzte martxoaren 13an eta 19an. Zorionak eta muxu handi bana familiaren partetik.



**OIER LASAGA MARTIKORENA** beratarrek urtea bete du martxoaren 11n. Zorionak zure familiaren partetik.




**AINHOA AGUILARTE LAZKANOTEGI** beratarrek 8 urte egin ditu martxoaren 16an. Auniz urtez maitia, atxa, ama, Alaitz eta Ganixen partetik.



**OIER LASAGA MARTIKORENA** beratarrek urtea bete du martxoaren 11n. Zorionak Trini eta bere familiaren partetik.



**MANU ETXABE LADERA** beratarrek 47 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak zure iloba Maria eta Maialenen partetik.



**MAIALEN ETXABE OLHAGARAY** zugarra-murdiarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak familiaren partetik.



**JOSE JOAQUIN OLHAGARAY ALEMAN** zugarra-murdiarrak 44 urte beteko ditu martxoaren 25ean. Zorionak zure iloba Maria eta Maialenen partetik.



**AMONA DOLORESEK** urteak beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak eta pa haundi bat amo! Orti bilobaren partetik.



**OIER LASAGA MARTIKORENA** beratarrek urtea bete du martxoaren 11n. Zorionak zure familiaren partetik.



## BERAko UDALA

### XEHETASUN AZTERLANA HASIERA BATEZ ONESTEA

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2005eko abenduaren 11n egindako bilkuran, Xabier Martikorena Aramendik aurkeztutako "exceso de edificabilidad consumida" delakoa legalizatzeo aurkeztutako Xehetasun Azterlana, hasiera batez onetsi zuen.

Espedientea jendeurrean izanen da hoguei egunez, iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2006.02.14  
ALKATEA  
Helena Santesteban Guelbenzu



## BERAko UDALA

### XEHETASUN AZTERLANA HASIERA BATEZ ONESTEA

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2005eko abenduaren 11n egindako bilkuran, Conservas Martikok aurkeztutako Antxoplean, "área continua de ocupación de suelo" delakoa osatzeko Xehetasun Azterlana, hasiera batez onetsi zuen.

Espedientea jendeurrean izanen da hoguei egunez, iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2006.02.16  
ALKATEA  
Helena Santesteban Guelbenzu



## BERAko UDALA

### XEHETASUN AZTERLANA HASIERA BATEZ ONESTEA

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2005eko abenduaren 11n egindako bilkuran, M<sup>a</sup> Carmen Martikorena Aramendik aurkeztutako "exceso de edificabilidad consumida" delakoa legalizatzeo aurkeztutako Xehetasun Azterlana, hasiera batez onetsi zuen.

Espedientea jendeurrean izanen da hoguei egunez, iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2006.02.14  
ALKATEA  
Helena Santesteban Guelbenzu



## MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEA

### MALERREKAKO MANKOMUNITATEAK LANGILE BAT BEHAR DU «MERKATARITZAN EUSKARAZ» EGITASMOA GARATZEKO

Langilearen eginbeharra Mankomunitateak antolatzen duen "Merkataritza Euskaraz" egitasmoaren baitan Malerreka establezimendu komertzial oro bisitatzea izanen da, Mankomunitatearen eskaintza azaldu eta ondoren merkatariek eskatzen duten materiala partitzeko.

Lan saria administrazioko langileen D mailakoa izanen da eta kontratuaren iraupena hilabete batekoa goiti-beheiti.

Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Hemezortzi urte beteak izatea.
- Eskola graduatua edo lehen mailako lanbide heziketa bukatua izatea.
- Lanpostuan aritzeko beharrezkoa den euskara maila izatea. EGA edo baliokidea den titulazioa erakusten ez duten izangaiei euskara proba eginen zaie.
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

Eskaerak Malerreka Mankomunitatearen egoitzan, (Merkatarien Karrika 17 beheiti, 31740 Doneztebe, 948 451746 ifnoa.) aurkeztu beharko dira, 2006ko martxoaren 24ko 14:00ak baino lehen.





**Labiaga ikastola**  
**BERA**  
 948 630 172  
[bera@ikastola.net](mailto:bera@ikastola.net)

**Tantirumairu ikastola**  
**LESAKA**  
 948 637 308  
[lesaka@ikastola.net](mailto:lesaka@ikastola.net)

Lankidetzeta eta partaidetza  
 cooperación y participación  
 Eleanitza  
 Plurilingüe  
 Hezkuntza + kultura  
 Educación + kultura  
 Berezko proiektu pedagogikoa  
 Proyecto pedagógico propio

**MATRIKULATU**  
 Martxoaren  
 20tik 31ra

**EUSKARAZ**



**LARUNBAT  
 GOIZ ETA  
 ARRATSALDEZ  
 IREKIA**

**ORDOKI**  
 al t z a r i a k

*Estilo ugariako  
 mobleak*

ERAKUSKETA: Biltiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

# BORTZIRIETAN IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



**ARANTZA: Herri Eskola**  
☎ 948 634 104



**IGANTZI: Herri Eskola**  
☎ 948 637 829



**LESAKA: Irain E.P.**  
☎ 948 638 006

✓ Gure herriko  
hizkuntza eta  
kultura bultzatuz

✓ Doan

✓ Jantoki eta garraio  
zerbitzuekin

✓ Integratzailea

✓ Teknologi berriez  
baliatuta

✓ Haur eta Lehen  
Hezkuntza herri  
eskoletan

✓ DBH, Batxilergoak  
eta LH bertako  
Institutuan



**BERA: Ricardo Baroja E.P.**  
☎ 948 625 019



**ETXALAR: Landagain E.P.**  
☎ 948 635 215



**TOKI-ONA Institutua**  
☎ 948 625 000

## TXIKIAK HEZITUZ HANDITU

**Izen ematea:**

**Haur eta Lehen Hezkuntza martxoaren 20tik 31ra**

**DBH: apirilaren 5etik 20ra**